

Arrasate

P R E S S

2000.eko
maiatzaren 19a
496. zenb.



Bailarako telebista

Astelehenetik aurrera

IKUSPEGIA: **IKER EZPELETA** • EUREN IKUSPUNTUTIK: **JAIONE GUEZMES**
 KIROLA: **ARRASATE-OÑATI** • KULTURA ELKARRIZKETA: **ANDONI MUJIKA**

Maiatzak 20 eta 21

FERRITUR

DEBAGOIENENKO I. TURISMO AZOKA

ARRASATE UARKAPE *Frontoia*

ORDUTEGIA 10:00 - 15:00 / 16:30 - 21:00

Sarrera Dohain



BIDAIA EN ZOZKETA

Antolatzailea

Laguntzailea


CICL 37-03
HALCON
X/ ARRASA BIDAIAK

DEBAGOIENENKO
MANKOMUNITATEA



Arrazakeria edonon

Otsailean gertaturiko aldrebeskeriak medio famatu egin zitzaigun El Ejido Almeriako herria. Azken egunotan Barakaldo azaldu zaigu komunikabide gehientsuetan, San Juan Bosco de Burtzeña eskolan ikasten duten ikasle gehienen gurasoek ez bait dituzte bertan nahi hiru anai ijito 5, 7 eta 8 urtekoak.



Iker Ezpeleta

Bi kasuak, urrundik ikusirik, denoi iruditzen zaizkigu arrazakeri kutsuko jokamoldeak.

Tamalez ez dago zertan Arrasatetik irten beharrik antzeko iritziak somatzeko.

Nik neuk bi kasuren berri izan dut. Bata Zigorrolan buzoneatu ziren panfletuen ingurukoa. "Ijitoak? Ez, eskerrik asko!" zuen izenburuzat eta zeharo arrazista izan arren faxista burubako baten

Astakeria handitxo da pertsonak eta zaborrak nahastea

ekimena dela pentsatu nahi dut (kontuz ibili beharko da tipo horreaz dena den).

Gauzak horrela kezka-gariagoa deritzot proiektaturiko kanpamendu nomadak Meatzerrekako bizilagunen-gandik jaso duen gaitzezpena.

Erabiltzen duten lehen argumentua bere jabetzek pairatuko zuketzen desbalio-tzea da. Hori gertatuz gero haserretzekoa litzateke

egoera, baina ez ekonomiaren astakeria hauek pairatzen dituztenen aurkakoa (nomada etxebakoak), egoera hauek bultzatzen dituzten espekulazailen aurkakoa baizik.

Beste argumentua biziko zuten segurtasun faltan datza; ondasunen gainean (lapurretak,...) eta pertsonalki (andra batek bere alabak bortxatuko zituztela zioen). Akusazio hauek honelako arinkeriaz jaurtitzea ankerkeria da. Lapurrik handienak

politiko, bankeku eta antzekotan bilatu; eta andrea, sexu eraso gehienak etxe barruan ematen dira beraz, zure logikari jarraituz bota ezazu zure senarragutxienez beste auzo batetara.

Meatzerrekako bizilagunak kexu dira ere —arrazoi osoz— inguruko zabor guztiak jaso izan dituztelako eta jasotzen dituztelako, nahiko karga dutela eta ez dutela gehiagorik nahi. Astakeri handitxo da pertsonak eta zaborrak nahastea, ezta?

Bukatzeke, eta leku faltagatik gaiak ematen bait du gehiagorako, kontradizio bat. "Marginazioa areagotuko duela diote —heritik aparte ezin dela jendea integratu...— eta bestalde beste auzo batean kanpamendua kokatzeko edo rotazio bidez auzoz auzo mugitzea proposatzen dute", bizikidetzan laguntzeko?

El Ejidoko nekazari batek esana "gu ez gara arrazistak" jarraian gehitzen zuelarik "zabor guzti hau kanporatu arte ez da arazoa konponduko".

Bakoitzak atara ditzala bere konklusioak baina ez dut uste jende hau karga bat bezala hartzea eta ondorioz pairatzea aurrera pausorik denik. ■

"GoiTBren ekarpenik handienetako bat Debagoiena osora eta Aramaiora euskara hutsezko telebista eramango duela da".

Joxe Aranzabal

2.000.000

emango dizkio Arrasateko Udalak Euskal Fondoari.

Diru hori El Salvadorren egin nahi diren bi elkarkidetzeta programatan inbertituko da: Morazanen 100 etxebizitza egiteko (1,5 milioi pezeta) eta Libertad eta San Salvador departamentuak edateko urez hornitzeko (500.000 pezeta).

AURKIBIDEA

• Ikuspegia	3	• Zaldibar	20
• Arrazakeria edonon		• Eskola kirola	23
• Inkesta	5	• Kirolak jokoan	24/25
• Euren ikuspuntutik	6	• Aurrez aurre	26/27
• Konpromisoaren arrazoia		• Balen Tramón	
• Asteko hitzorduak	8/9	• Kulturaren txokoa	28/29/30
• Astearren errepasoa	10	• Ikusi eta entzun	31
• Orain eta hemen	11/12	• Azoka plaza	32/33
• Txutxumtxuak	13/14	• Foto zaharra	34
• Asteko gaia	17/18/19		
• GoiTB astelehenean sortuko da			

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Dieguez. **Kazetaririk:** Urbane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arriabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Izaskun Salazar. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoak kontzertatuta.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatutuan egiten da.

Azala: Eneko Azkarate.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate

- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
- Arretxabaleta 943 79 74 58
- Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Arretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

GARAIA EGITASMOARI BURUZKO FORU BAT

Aldizkari honetan, orain dela bi aste "Garaia egitasmoa"ri buruzko azterketa txiki bat egiterakoan, Mikel Irizarrek iragarri zuen hau tratatzeko ondo egongo litzatekeela eskualdean foru antzeko bat egitea. Ezin hobeto asmatu. Zenbait ekimen estrategiko gure eskualdean sistematikoki erabaki eta gauzatu egiten dira, inolako eztabaida sozialik zuzpertz gabe. Batzuek erabaki, eta halako abiadura handia daraman —barnean eramaten gaituen trenak— tren horrek nora garatzen hausnarketa egiteko ordua heldu zaigu. Tren kooperatiboa dela eta, ziurtatua daukagu garapen eredu? Hemen dugun jardura ekonomikoak... bermatzen du eskualde barneko bazterketa? Eta garapen sustengarriaren lehen baldintza, non belaunaldi batek ingurumenari kalte ez egiteko dauden errekurtso ekologikoak erabili beharko litzuke. Hori, noski, eta hau da gakoa, "belaunaldien arteko elkartasuna" mantenduz... baina... gauzatzen al dugu hori hemen? Forua bai, baina dauzkagun herri-komunikabideak... ez dira kontserbadoregiak horretarako?

Antxon Mendizabal eta Sagra Lopez

EUSKAL PRESOEN PROPOSAMENA

Euskal Presoen kolektiboa gutun bat eta proposamen bat helarazi zien azken urteetan euskal presoak Euskal Herritarzearen alde, eta haien eskubideen defentsan aritu diren giza eragile ezberdinei (politiko, sindikal eta abarrei).

Bertan presoek egiten zuten hausnarketa honakoa zen: "azken urteetan euskal gizarteak lan mardula egin du, mobilizazio andana egin ditu euskal presoak Euskal Herritaruak izan zitezen, baita beraien eskubideen defentsan ere. Eskaera argi horren aurrean, Estatu frantziar eta espainiarrak muzin egin diote euskaldunok emandako hitzari".

Presoek ere urte luze haue-tan borrokari ekin diote. Egoera jasanezin horretan, joan den urteko azaroaren batean gose greba mugagabeari ekitea erabaki zuten, hainbat preso beraien bizia arrisku bizian jarri dutelarik. Gaur egunean, ia 200 preso egiten ari dira gose greba mugagabe hau.

Egoera larri honetan, eta presoek egindako konpromiso eskaera horren aurrean, Arrasateko herritarroi proposamen zehatz bat helarazi nahi dizuegu:

- Maiatzaren 19an, ostirala, barau eguna. Arratsaldeko 19:30ean kale agerraldia eta ondoren itxialdia Udaltxean, larunbat goizera arte.
- Maiatzaren 22an, astelehena, arratsaldeko 20:00etan, Gasteizen, politika hiltzaile honen arduradun den PPko egoitzaren aurrean, kontzentrazioa. Horretarako autobusak antolatu dira (19:00etan Garibaiko geltokian).
- Maiatzaren 23an, asteartea, ikasleen greba; bertan eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 19:30ean kale agerraldiak egingo dira.
- Maiatzaren 24an, asteazkena, greba instituzionalaren barne, eguerdiko 12:00etan, herriko plazan, kontzentrazioa; eta arratsaldeko 19:30ean egingo den manifestaziorako dei egiten dizuegu.
- Maiatzaren 25ean, osteguna, ostalaritzan, komertzioan eta lantegietan greba orokorra deitzen dugu. Manifestazioak izango dira, eguerdian 12:30ean eta arratsaldean 20:15ean.
- Maiatzaren 26an mobilizazio eguna egingo da, arratsaldeko 19:30ean kale agerraldia.
- Maiatzaren 27an Manifestazio Nazionala antolatuko da; autobusak egingo dira.

Arrasateko presoek proposamenaren talde eragilea

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 19

- Ruiz, Maalako Errabala

Larunbata, 20

- Morales, San Andres

Igandea, 21

- Azkoaga, Ferrerías

Astelehena, 22

- Azkoaga, Iturriotz

Asteartea, 23

- Korkuera, Musakola

Asteazkena, 24

- Irizar, Erguin

Osteguna, 25

- Ametzua, Santa Marina

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Zer deritzozu GoiTB sortu eta ATB desagertzeari?

Maiatzaren 22an Debagoieneko telebista sortu eta ATB desagertuko da.



Ildefonso Vega
(64 urte)
Langilea

Ondo deritzot. Telebista askotan ikusten dut.



Ander Letona
(13 urte)
Ikaslea

Ondo; horrela, Aretxabaleta eta Eskoriatzaren berri ere izango dugu, besteak beste, eta eurek ere ikusiko dute.



Ander Garai
(13 urte)
Ikaslea

Ondo deritzot. Arrasate Telebista barik, bailara osoko telebista izango da. Aspaldi egin beharreko zerbait zen.



Amalia Espejo
(38 urte)
Langilea

Ez daukat horren berri, gainera ez dut telebista askotan ikusten. Dena dela, hobetarako bada, ondo.



Alberto Ozaeta
(33 urte)
Langilea

Niri pena ematen dit. Arrasatearrondako beste herrietako berriak soberan egon daitezkeela uste dut.



Maria Angeles Gamito
(56 urte)
Etxeko andrea

Ondo, hobeto, inguruko herrien berri ere izango dugulako.



Eloina Materiall
(53 urte)
Erretiratu

Geroz eta herri gehiago ezagutu, orduan eta iritzi gehiago izango ditugu.



Mari Luz Fernandez
(31 urte)
Langilea

Ondo deritzot; horrela, gure inguruko jendearen berri ere izango dugu.

Focus TDdi

Injekzio zuzena
1.975.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 beheha
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Badator GoiTB

Otsailaren 13an hamar urte bete zituen ATBk.

Baina, domekan ATBrenak egingo du. Dena dela, bere fruituak Goiena elkartearen lehenengo loreak jasoko ditu: GoiTBk, Debagoieneko telebistak. Hamarkada bateko eskarmentutik eta bailarako euskara elkarteen eta herriko komunikabideen laguntzarekin ekingo dio bere bideari telebista horrek. Ilusioz beterik, Arrasateko kontuekin batera, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Aramaioko kontuak hasieran eta, ondoren, Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolakoak batuko ditu.

Norberaren alborrari begira egon barik, gure lan esparrua zabaldu eta gure bailarako bizilagunak hobeto eta gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiko digu GoiTBk.

ATBko ikus-entzule fidel zaretenoi penarik ez izatea eskatuko nizueke. Mondragoera bailarako beste herritar asko etortzen da lanera egunero, eta astelehenetik aurrera euren herriei buruz jakiteko aukera izango duzue.

ATBk orain arte egin duen lana eskertzeko modukoa da eta bertan aritu den jende guztia-rena ere bai.

Agur, bada, ATB eta ongi etorri GoiTB!

Marijo Deogracias



Konpromisoa

* Jaione Guezmes

Euskal preso politikoen egoerak ez du onera egiten, guztiz kontrakoa baizik, gero eta egoera kaskarragoan daude. Presoen zein senideen arazoei ez zaie irtenbiderik ematen. Asko dira senideok greba orokorrerako deialdia egiteko arrazoiak.

Hainbat preso ditugu herrian, hiru laurdenak beteta, bahiturik jarraitzen dutenak:

- Pedrotxok 1995ean bete zituen. Sei aldiz egin du aske geratzeko legeak ematen dion aukeraren eskaera. Guztietan ukatu diote.

- Goio Etxabek 1999ko apirilean bete zituen.

- Jon Agirrek aurreko astean bete ditu 19 urte espetxez espetxe; duela 4 urte bete zituen 3/4ak.

- Eta, azkenik, Zabarte. 1999an bete zituen.

Hilabeteak daramatzate presoek gose greba mugagabea, beraien legea bete eta giza eskubideak errespetatuta ditzatela eskatuz. Argi izan behar dugu, pertsonak protestatzeko duen azken bidea gose gre-

ba mugagabea dela; bizitza bera dela euskal preso politikoen kolokan jarri dutena eta askoren osasuna benetan kalte-tua izan dela. Herriko hainbat seme-alaba, ezin baldintza txarragotan, bahiturik, giltzapeturik eta euren senide eta herriarengandik oso urrutidago. Zergatik horrelako sufrimendua? Zertarako behar ditugu legeak, gero praktikan jarritzen ez badira?

Urteak daramatzagu lanean euren legea betearazi nahian, baina egoerak ez du onera egiten.

Dispersioa, presoarekin batera senitartekoak zigortzeko helburuarekin jarritzen. Ez da nahikoa etxeko

bat bahitua izatea?

- Gure herrian Pedrotxo, Letona, Pako eta Goioren senide eta lagunek trafiko istripuak izan dituzte bisitetan, preso zein senideentzako dakarren sufrimenduetan.

- 14 preso eta 8 senide hil dira dispersioaren ondorioz. Legeak dioenez, etxetik ahalik eta hurbilen egon behar-ko lukete, baina horrek bost axola beraiei. Gero eta urrutiago, gero eta sufrimendu handiagoa denontzako.

Urrunkera horretan garrantzi handiko beste faktore bat dugu, ekonomikoa. Arrasateko presoen senide eta lagunek, 45 milioi pta inguruko kostua izan dute dispersioarekin hasi zirenetik (hilean bi bisita egitean ateratzen diren kontuak). Kostu honi, asistentzia sanitarioa gehitu behar izaten zaio.

- Pedrotxok urteak daramatza Hernia Diskalarekin egundoko sufrimendua jasaten.

- Zabartek hortz guztiak galdu ditu,....

Espetxe instituzioek ez dute ezer egiten gaixotasunei behar duten laguntza ematearren. Euskal preso politikoen eskubideak ez direlako egoera politikoen arabera aldatzen, denok egin behar diogu aurre egoera honi, eta egiten diren mobilizazioetan parte hartu behar dugu. **GUZTION KONPROMISOA BEHAR DA.**

*Arrasateko Senideak

“ Arazoei ez zaie irtenbiderik ematen. Asko dira senideok greba orokorrerako ditugun arrazoiak ”

IKER DEKORAZIOA

- Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

hildakoak

- Maria Olagain Charagain, maiatzaren 11n, 88 urte.
- Ana Jesus Uriarte Ascasibar, maiatzaren 15ean, 50 urte.
- Irene Arregui Gaztelurrutia, maiatzaren 17an, 94 urte.

ezkontzak

- Roberto Maria Iria eta Zorione Arana, maiatzaren 13an.
- Bittor Arriaran eta Arantzazu Lagunilla, maiatzaren 13an.

jaiotzak

- Eider Ruiz Mena, maiatzaren 11n.

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 19

Oso lainotua. Goizean, behelainoa eta zirimiria. Temperatura egonkorra izango da, eta haizeak iparraldekotik joko du.



LARUNBATA 20

Oso lainotua goizean, baina egunak aurrera egin ahala ostarteak agertuko dira. Goizean, behelainoa. Temperaturak gora egingo du.



IGANDEA 21

Oso lainotua, eta euri apur batez. Lehen orduetan behelainoa izango da. Giroa freskatu egingo da, eta iparraldeko haizea izango dugu.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91

mezak

San Joan parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:30 (erdaraz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santamañako eliza

- Jaiagun bezpera eta larunbata**
19:00 (erdaraz)
- Igandea**
12:00 (erdaraz)

Debagoieneko komunikazio enpresa batek
ZUZENDARI KOMERTZIALA
behar du

Enpresaren diru sarreraren ardura osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eratu den lantaldea zuzenduz, eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:

- Sormena eta antolaketarako gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuok kurrikuluma eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

LAN ESKAINTZA

Sukaldaritza kolektibo eta garbiketa negozioan liderra den eta zabalkunde prozesu indartsuan dagoen enpresak, ondorengo profesionalak behar ditu:

- Garbitzaileak Erf.: LIM/20
- Sukalde laguntzaileak Erf.: ATE/20
- Sukaldaritza tituludunak Erf.: CO/20
- Jantoki begiraleak Erf.: MO/20

Interesatuok kurrikuluma eta argazkia bidali, gutunazalean erreferentzia idatziz, maiatzaren 30a baino lehen, ondoko helbidera:

140 POSTA-KUTXATILA 20500 ARRASATE

19

ostirala

■ ZINEMA

Un domingo cualquiera, 19:00 - 22:00, Alai zinemana.

■ STIFF LITTLE FINGERS

Stiff Little Fingers talde irlandarra bergarako Jamen izango da, 22:00.

■ KONTZERTUA IAMAIN

Iamai kafetegian *Cartis* talde gasteiztarraren kontzertua izango da. Kontzezino, 14, 21:30.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Afilando Matxete taldeak kontzertua eskainiko du Gaztetxean, 21:30.

■ MUSIKETAN OÑATIN

Rory McLeod eta *Aimee Leonard* musikariek emanaldia eskainiko dute Oñatiko Gaztelekuan, 22:30

20

larunbata

■ ZINEMA

Pokemon, 17:00, eta *Un domingo cualquiera*, 19:30 - 22:00, Alai zinemana.

■ JAM ETA GO-JAM ARETOA

Saxon eta *The Bon Scot Bandek* kontzertua emango dute Jam aretoan, 22:00; Go-Jamen, aldiz, *Zeke* eta *Murder City Devils* izango dira, 01:00.

21

igandea

■ ZINEMA

Pokemon, 17:00, eta *Historias de lo Nuestro*, 19:30 - 22:00, Alai zinemana.

■ BEDOÑAKO ELIZA

Bedoñako elizak atek zabalduko ditu, berrikuntza lanak amaitu direlako. Eukaristia eta mokadua egongo dira, 12:30.

■ PRESOEN ALDEKO AGERRALDIA

Euskal presoak Euskal Herrira ditzaten eskatzeko agerraldia egingo dute Debagoieneko plataformek, Gazte Ekimenek, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta EHNE sindikatuek, Kooperatibetako plataformek eta bailarako Udalek. Bergarako plazan, 19:00.

■ BIOLINA ETA KLABEZINA

Fabio Biondi biolin joleak eta *Fabio Bonizzoni* klabezin joleak kontzertua emango dute Oñatin. Santa Ana antzokian, 19:30.

■ KONTZERTUA JAMEN

Molotov eta *Violadores del Verso* taldeek kontzertua emango dute Bergarako Jamen.

22

astelehena

■ ZINEMA

Historias de lo nuestro: 19:00 eta 21:30, Alai zinemana.

23

asteartea

■ ZINEMA

Historias de lo nuestro: 19:00 eta 21:30, Alai zinemana.

25

osteguna

■ ZINE-KLUBA

Arrazakeria eta Bazterketa Soziala zinema zikloaren barruan, *Hola Primo* filma eskainiko da. Amaia Antzokian, 21:30.



TOLDOS LECE C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

Feritur Turismo Azoka

Maiatzaren 20an eta 21ean Feritur, Debagoieneko I. Turismo Azoka,

egongo da zabalik Uarkape pilotalekuan. Halcon Bidaiak agentziak antolatu du ekintza hau, Mankomunitatearen laguntzarekin. Maioristak, turismo bulegoak, hotel kateak, erakusketak... ikusi ahal izango dira. Gainera, datoren udarako produktu eta aukera berriak erakutsiko dira.



Txatxilipurdiren udalekuak

Udan ondo pasatzeko aukera eskaintzen die Txatxilipurdik adin orotako umeei. Txikienek Bilin-bolonka eta Babylekuak izango dituzte aukeran, LHko 5. eta 6. mailakoek Arrasateko eta Otazako Udalekuak; DBHko 1. eta 2. mailakoek Baztan-

Bidasoan egonaldia, eta DBHko 3. eta 4.ekoek Asturiasera bidaia.

Argibide gehiago Txatxilipurdirin emango dizuete, edo ondoko telefonoetan: 943 79 54 46 eta 943 77 17 39.



Al-Andalusen XI. Kultura Astea

OSTIRALA,
19

19:30
Jurassic Banden emanaldia

22:30
Antzerkia

LARUNBATA,
20

11:00
Kirol eta joko finalerdiak

13:00
Barbakoa eta Lore Jokoak

19:00
Dantza eta txirigotak

21:30
Bazkideen afaria

24:00
Dantzaldia

IGANDEA,
21

11:00
Kirol eta joko finalak

14:00
Sari banaketa eta mokadua

19:00
Emanaldiak

■ SANJOANETAKO KARTELAK

Maiatzaren 19a da Sanjoanetako kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna. 50 x 70 zentimetrokoak izan beharko dute, eta 2000 San Juan Jaiak Arrasate testua eraman beharko dute. Kultura Sailean, eguerdia baino lehen.

■ DANBORRADA

Jaietako danborradan esku hartu behar duzuenok, gogoan hartu entseguak ondoko egunetan direla: helduenak joan den eguaztenean hasi ziren, astelehen eta eguazteneo, 20:30; txikiak, ostera, martitzen eta eguenero, 17:30. Danborradan irteteko derrigorrezkoa da entseguetara joatea.

■ AHTREN AURKAKO AGERRALDIA

AHTren aurkako asanbladak agerraldia antolatu du hilaren 20an, Irunen eta Hendaian, eta Arrasateko AHTren aurkako asanbladak parte hartzera deitzen du. Irungo Urdanibia plazan, 17:00, edo Hendaiaiko geltokian, 17:30.

■ ERAKUSKETAK

Hilaren 19tik 28ra, Monerroneko pintura ikastaroko erakusketa izango da Harresi Aretoan. Bestalde, 22tik 26ra, 3. munduaren inguruko erakusketa hartuko du Monerronek, Harreman taldearen eskutik.

■ 1949KO KINTOAK 1949an jaiotakoek

bazkaria egingo dute uztailaren 8an. Izena ematea epea ekainaren 17a baino lehenago egin behar da, Lore edo Zabaleta dendetan. 5.000 pezeta ordaindu behar dira.

■ ELKARTASUN EGUNA

Maiatzaren 27an Seber Altube plazan Arrasateko Harreman, Komiteak, Esku Batuak, Mugarik Gabeko Ingeniariak, Caritas eta Serso taldeek Elkartasun Eguna antolatu dute. Bidezko Merkataritzako produktuak, jolasak eta erakusketak egongo dira egun guztian zehar.

Gizonak
Emakumeak

Jantziak

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

astea bi hitzetan

■ Batasuna

Abertzale eta ezkertiar sentitzen diren guztiak batzeko erakunde berria eraiki nahi dute. Joan den ostiralean aurkeztu zuten Iruñean "Batasuna" izenarekin. Berrehun lagunetik gora sinatu dute asmo politiko hau. Tartean lau mondragoetar ere badaude: Jon Andueza telebistako aurkezlea, Juan Ramon Garai sindikalista, Antxon Mendizabal unibertsitate irakaslea eta Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea.

Hiru erronkari egin behar ko dio aurre "Batasunak": Euskal Herriari nazio berezi bezala bizitzeko aukerak bermatzea, globalizazioari alter-

natiba bat eskaintzea, eta demokrazian oinarrituko den bake gunea eraikitzea.

Urtebeteko epea izango du eratzeko. Horren ondoren sortuko den egitura politikoa hego Euskal Herrian kokatuko da.

■ Ingeniari berriak

Goi Ingeniaritzako bigarren promozioiko ikasleek ikasketa amaierako diploma jaso zuten barikuan. Industria Antolakuntza Ingeniaritza eta Automatika eta Industria Elektronikako Ingeniaritza dira diploma jaso zuten ikasleek egindako ikasketak. 63 ikasle izan ziren guztira. Unibertsitatearen aldetik,

Jabier Retegi Aiaastui errektorea, Jabier Retegi Albisua Eskolako dekanoa, Jabier Mendiluze Ingeniaritzako zuzendaria eta Jose Mari Aldekoa Eskolako lehendakaria egon ziren.

■ "Hilik"

Alcala Mecoko espetxean dauden sei presori, Josu Arkauz eta Kepa Urra mondragoetarrak tarteko, itzuli egin dizkiete azken aldian bidalitako eskutitzak, "hila" hitza gutunazaletan idatzita, presoak hilda baleude bezala. Horixe adierazi dute preso senideek. Ez da lehen aldia espetxe horretan horrelakoak gertatzen direla.



■ Kobateren aurka

"Ingurumena defendatu. Kobate itxi!". Lelo horrekin egin zuten Mondragoeko ekologistek zapatuko protesta ekitaldia. Agerraldi isila izan zen; helburua, berriz, jendea kontzientziatzea. Izan ere, ekologisten ustez, harrobiak lehenbailehen ixteko premia dago.

Kobateren aurkako protestarekin harrobien aurka hilabetez egingo den kanpaina hasi zuten Mondragoeko ekologista taldeak.

“ Esku artean dugun zeregina, hau da, hizkuntzaren ohiturak aldatzea, gure arteko harremanetan, kooperatiben barne zein kanpo jardueretan euskararen erabilera normalizatzea ez da erronka makala eta euskara-plangintzen bidez lortu nahi diren helburuak ez dira egun batetik bestera lortuko. Baina, aldi berean, non geunden, non gauden eta norantz joan nahi dugun argi izanez eta asumitutako erronkari aurre eginez, deklarazio eta printzipio handietatik aldenduz, egunerokotasunean gaia jorratuz, arazoak landuz eta gaindituz, bidea egingo dugu. Are gehiago, bidea egiten ari gara eta bide zuzenetik ekin zaiolakoan nago.

JUAN LUIS AREXOLALEIBA

Tu Lankide

(2000ko apirila)



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Elgeako zentral eolikoa abian

Elgeako zentral eolikoaren lanak oso aurreratuta daude.

Ipinita dauden 31 aerosorgailuetatik, 20 lanean dabil-tza dagoeneko. 500 orduko epe-froga bete behar du aerosorgailu bakoitzak eta horretan ari dira, funtzionamendua egokia den edo ez ikusten. Hor-tik lortzen den energia Iberdrolari saltzen zaio bere sarean sartzeko eta beharra dagoen tokian erabiltzeko.

Beraz, Elgea estreinatu dela esan genezake. Are gehi-ago, ekainerako lan guztiak bukatuta egotea espero du Roberto Izagak, Eolicas de Euskadiko gerenteak.

Lanekin batera, ingurua berreskuratzeko egin behar-rekoetan ere badabil-tza. Belar-rra landatu da bigarren aldiz



Ekainaren erdialderako zentrala bukatuta egotea espero da.

eta 1.000 ametz (haritzaren familia bereko arbola) ere jarri dira, enpresakoek adierazita-koaren arabera.

Baina, arazoren bat zein beste ere bueltaka dabil Elge-

an. Lanen Jarraipen Batzor-dean aurkeztutako ur-froga batean, Usakotxenako iturrian hidrokarbuoak agertu izana salatu dute. Bigarren aldia da hori gertatzen dela. Adierazi-

takoaren arabera, Eolicas de Euskadi jakinaren gainean dago eta egoera aztertzekotan da. Bitartean, adi ibiltzea komeni da eta Usakotxenako urik ez bada edaten, hobeto.

Aurrez ikusita zeuden 40 aerosorgailuetatik 37 ikusi ahal izango ditugu ekainean Elgean. Eolicas de Euskadi enpresak esan duenez, falta diren hirurak ez dira ezarriko, baldin eta Eskoriatzako Uda-larekin dauden arazoak kon-pontzen ez badira.

Etorkezunari begira, berriz, beste ezer egin aurretik, EAE-rako plan eolikoa onartu behar-ra dagoela ikusten du Eolicas de Euskadik, plan horrek ezarriko dituelako EAEn zentralak ezartzeko irizpideak eta baita kokaguneak ere.

EAJ eta EA, bakoitza bere aldetik

Urtebeteko epealdia batera eman ondoren, EAJk eta EAK koalizioa apurtzea erabaki dute. Bai Jose Mari Loitik (EAJ), zein Jose Mari Urizar "Ametzuk" (EA) adierazi digutenez, bi alderdien arteko koalizioa ekaineko hauteskundeetarako izan zen bakarrik. Orain, alderdi bakoitzaren nortasuna gordetze aldera, bakoitzak bere bidea egitea erabaki du. Hori bai, bi alderdien arteko harremanak orain artekoak modukoak izango direla baieztatu dute eta baita elkarlanean segitzeko asmoa dutela ere.

Berriro ere alderdi bakoitza bere kabuz ibiliko denez, udaleko batzorde informati-boetarako izendapen berriak ere egin behar izan dira; hauexek dira: **Pertsonalean**, Itsaso Garai (EAJ) eta "Ame-

tzu" (EA); **Ogasunean**, Garai eta Amaia Larrañaga (EA); **Auzoenean**, Mariangeles Iñurritegi (EAJ) eta Juan Antonio Barriocanal (EA); **Kulturan**, Larrañaga eta Garai; **Enpleguan**, Loiti eta Barriocanal; **Zerbitzuetan**, "Ametzu" eta Iñurritegi; **Ingurumena**, Loiti eta "Ametzu"; **Hezkuntza**, Barriocanal eta Garai; **Gizarte Zerbitzuetan**, Larrañaga eta Garai; **Emakume Batzordean**, Larrañaga eta Iñurritegi; **Gaztedian**, Barriocanal eta Garai; **Eus-karan**, Garai eta Larrañaga **Hirigintzan**, "Ametzu" eta Loiti.

Informazio hau dena, atzoko osoko bilkura egin baino lehenagokoa da, beraz, posible da aldaketaren bat zein beste izatea.

Lan baldintzen aurka



Lau orduko lanuztea egin zuten asteazkenean OMICO enpre-sako langileek. Lankide bat 20 egunerako kalera bidali dute; enpresako zuzendaritzaren ara-bera, ez du egiten dagokion pro-dukzioa. Gainera, lankideren batekin liskarrak izatea ere egotzi diote. Ordezkarri sindi-kalek diotenez, ordea, zigor-tutako langileak ez du liska-rrik izan eta produkzioari dago-kionez, OMICOK ez du inoiz produktibitatea neurtu. Salatu

dutenez, produktibitate plusa ordaindu barik, ahalik eta gehien produzitzea eskatzen zaie langileei.

OMICOK Fagorrendako egiten du lan, garbigailu eta ontzi-garbigailuendako saskiak egiten. Gaur adiskidetzeta bile-ra izan da, baina sindikatuek ez dute uste akordiorik egon-go denik, zuzendaritzak bere langileak presionatu nahi ditue-lako langile horren aurka har-tutako erabakiarekin.

Arazoak Fagor Ederlanen

Esku artean dugun informazioaren arabera, Eskoriatzako Fagor Ederlan estu eta larri dabil, BMWk Rover etxea Phoenix enpresari 2.500 pezetatan saldu zionetik. Nazioarteko operazio ekonomiko honek zuzenki egin du Fagor Ederlanen kontra; izan ere, gure iturrien arabera, Eskoriatzako lantegian, produkzioaren %20 inguru Britainia Handiko Rover etxearendako egiten da. Eta orain, Phoenix enpresak Rover automobilak stockean izan beharrean, eskararen arabera egiten dituzenez, produkzioa izugarri jaitsi da. Ondorioz, Fagor Ederlaneko ehun bazkide inguruk bere



Lehen hiru txanda egiten ziren Rover-rentzat, orain bat.

lanpostua aldatu behar izango dute, batzuk Ederlanen bertan eta beste batzuk kooperatibako beste enpresatan. Gainera, gure informazioaren ara-

bera, aldi baterako langile asko kaleratu dituzte dagoeneko. Fagor Ederlaneko ordezkariak ez dute adierazpenik egin nahi izan.

Udal haur eskola

Atzoko osoko bilkuran eztabaidatu beharreko beste gaietako bat udaleko haur eskola sortzearena zen. Bestelako udal haur eskolak diru laguntza gehiago lortzen dituztelako egin da proposamena. Modu horretan, zerbitzu hobea eskaintzea espero du udalak. Orain Umezaintza dagoen

tokian kokatuko litzateke eta zerbitzuaren adjudikazioa lehiaketa bidez egingo da. Hala ere, hau guztia osoko bilkuraren aurretik jasotako informazioa da.

ARRASATEKO AUTOBUSA

Osoko bilkuran, bestalde, zerbitzu honen adjudikazioa pro-

posatzekotan ere baziren. Tuterako Automoviles Rio Alama izan da Mondragoeko hiri barruko autobusaren adjudikazioa lortzeko puntu gehien eskuratu dituenen, beraz, baieztatuta izan ez arren, litekeena da aipatutako enpresak eskaintzea zerbitzua irailetik aurrera.

Lanak nonahi

Gobernu Batzordearen erabakiz, Elkano kalean Iluna tabernaren pareko aparkalekua berriztu egin behar da. Orain dauden irlatxoak kendu, espalo berria egin eta ilaran aparkatzeko tokia egingo da. Bedoñan sare elektrikoa handituko da eta baita Atxabalpen ere. Herriko mendiak garbitzeko lanak ere hasiko dira.

Lan istripua

Astelehen eguerdian, lan istripu larria izan zen Bedoñan. Ismael F. G., 48 urteko langilea argi poste batetik jausi zen. Eskualde ospitalera eraman zuten arnasa hartzeko eta mugitzeko arazoekin. Ebakuntza egin zioten. Buruko traumatismoa zuen eta sabalaldean hemorragia. Gero Santiago ospitalera eraman zuten, Bere egoera larria zen.

Presoen aldeko ekimenak

Euskal presoen eskubideen aldeko ekimenak egingo dira Mondragoen. Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, gaur kale agerraldia izan da herrian. Asteartean, ikasleak greba egitera deituta daude; eguerdian eta arratsaldean kale agerraldiak egingo dira. Maiatzaren 24an, greba instituzionalaren barne, kale bilkura egingo da eguerdian eta agerraldia arratsaldean. Ostegunerako greba orokorra deitu da ostalaritzan, merkataritzan eta lantegietan. Eguerdian eta arratsaldean kale agerraldiak izango dira. Ostiralean, mobilizazio eguna deitu da Mondragoen eta larunbatean Donostiara joateko autobusak antolatu dira.

Presoekiko elkartasun taldea protestan

ELA sindikatuak presoen eskubideekiko duen jarraera epela salatzeke helburuarekin, sindikatuaren atari lau lagun kateatu zitzaizkion asteazkenean. Beste hiru pankarta batekin egon ziren kanpoaldean. Guztiak biluzik agertu ziren, manta batez estalirik. ELAK hitza eman eta gero presoak biluzik uzten dituela adierazi nahi izan zuten horrela jantzita. Izan ere, komunikabideoi emandako prentsa oharrek dioenez, ELA



presoen eskubideen alde agertzeaz gain, ekimenetan parte hartzeko konpromisoa ere hartu zuen. Hala ere, ELAK azken asteotan pre-


soen proposamenari muzin egin dio, bere konpromisoa apurtuz. Ertzaintzak protestagileen kateak apurtu eta datuak hartu zituen.

SAN ISIDRO JAIAK 2000




San Isidroek irudi piloak utzi digute aurten ere. Txikienek ostiralean kirolak eta jokoak izan zituzten. Larunbatean Arrasateko Motozale Elkarteak antolatutako kontzentrazioa Arruénan. San Isidroko eliza ondoan herri bazkaria.

Juan Inazio Biaini eman diote aurten Urrezko Astokiloa. Berak bete du musakolarren amets bat: Arruenako zelaian astoa ipintzea. Eta auzokideek horrela eskertu diote. Zorionak!



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

IZENAK

Jesus Goienetxe

Bera da Mondragon Unibertsitateko lehendakari berria, Adrian Orbearen ordekoa. Bizkaiko Arrietan jaioa, 28 daramatza lanean kooperatibetan. Azken urteotan, MCCn Giza Gestioaren zuzendari eta Lagun Aroko lehendakaria ere bada. Goienetxe oso pozik dago ardura berriarekin, eta MUREn hurrengo erronka unibertsitatearen proiektua finkatzea izango dela argi ikusten du.



Corazon de Encina elkartearen Kultura Asteak asteburuan eman zituen onenak. Horrek Al-Andaluserari eman zion txanda. Andaluziarrek aurtengo Erregina eta Ohorezko Damen aukeraketarekin hasi zituzten ospakizunak.

JO ETA SU DANBORRARI!



"BITTOR ARRI.AN.TZAZU LAGUNILLAKIN



*biak elkarrek
Ezkondu egin dituzte
gogo ta maitemin
Batak zuzentzen dituzte
hamaika magar
Besteak itxuratu
gura haina mi
Biak erralio
txuri eta urdin*

Xabi Zubizarreta
ezkondu zituen
hauxe bota zituen
Zorionak
Aran eta Bittor

Hasiak dira Sanjoanetako danborradarako entseguak. Helduenak aste honetan hasi dira, baina txikienek orain bi aste ekin zioten danborra jotzeari. Eta, ikus dezakezuen bezala, txintxo-txintxo eta gozoz ari dira guztiak.


S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Ferrerias. 943 79 87 62

UGARTE

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

Oparia

EROSKETA DOHAINE



Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu Aretxabaletako Arkauz Altzariak (Araba Ibilbidea, 20) 2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean, arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari (500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletan dago zehaztuta.

Erosketaren
zenbatekoa:

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

MARGA jantziak



Askok ezagutzen dituzue lehendik
"Marga"ren arropak...

**Dagoeneko ez duzue
kanpora irten beharrik.**

Neu etorri naiz!

Badakizue:
ITURRIOTZen naukazue

*Nahi duzuen
arte!!*



Iturriotz, 21 • ARRASATE • Tel.: 943 71 17 40

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairua, hormako armairua, atea, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGÍ PLÁSTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxes: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Igeltsoak - Apaintzea

Pako eskaiolak s.l.

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

A. Pascual

Bañez Dokorea, 8

Tel.: 943 79 65 29

Mug.: 666 59 58 05

JOVI

10.000 KOLERETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

Pertsianak



PERSIANAS CARPER

Mota guztietako pertsianen
salmenta, muntaketa
eta konponketa

Eskuzko pertsiana eta elektrikoak

Anboto2. 1esk. Tel.: 943 79 67 43
Mug.: 630 27 46 09

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Tapizeriak

Konrado

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

Eskatu aurrekontua.

Nafarroa etorbidea, 23 MI11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Goitb astelehenean Goiena Telebista sortuko da

Datorren astelehenean, maiatzak 22, sortuko da Goiena Telebista. Maiatzeko lorak bezala, Goienaren lehenengo loratzea izango da. Hasieran Leintz aldean bakarrik ikusiko da. Beraz, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaioko herri-tarrek, 35.000 bat lagunek, ikusi ahal izango dute. Ostera, Oñatin, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan, oraingoz ez dute ikusiko, baina helburua, udazkenerako GoitB bailara osora zabaltzea da. Orduan, 65.000 lagunengana helduko da.

Domekan izango da Arrasate Telebistako azken emankizuna. Astelehenetik aurrera, ATB desagertu eta GoitB jaioko da. Atxabalta Telebistak ere joan zen maiatzaren 5ean utzi zion emititzeari. Hango langileak Arrasaten ibili dira egun haue-tan ATBko taldearekin elkar-lanean.

Goiena Telebistak orain arteko ATBko programazio bera izango du hemendik udara bitartean. Urrian, berriz, parrila berria estreinatuko da eta saio berriak abian jarriko dira. Astelehenetik aurrera, hala ere, hainbat saioen eduk-iak egokitu egingo dira, aurre-rantzean telebista Arrasaten bakarrik ez baita ikusiko. Eta zenbait saioen izena ere aldatu egingo da; esaterako, "Mon-



ATBk emisioak eten eta GoitB abiatuko da Leintz adarrean, astelehenean bertan.

drasport" izan beharrean "Goienasport" izango da. Joxe Aranzabal da Goiena Telebistako erredakzio burua. Berak dioskunez, "aldaketa nagusia da hemendik aurrera informazioaren subjektua aldatu egiten dela: jada ez da Arrasate izango, bailara baizik. Horregatik, azkenaldian bagabiltza bailarako albiste-ak jorratzen eta, nahiz eta ATB izan, GoitBri dagokion albistegia egiten hasiak gara Aste-

Santuko oporren ostetik. Dina-mika horrekin lehenbailehen astea komeni zitzaigun eta horregatik hasi gara sartzen bailara osoko berriak". Horren ondorioz, lan taldea osatu egin da herrietako berriemaldeen.

EMISIO ZENTROA ETA ORDEZKARITZAK

Goiena Telebistako emisio zentro nagusia Arrasaten egongo da, gaur egungo ATBren egoitzan. Horrez gain, hiru

ordezkaritza izango dira: Aretxabaletakoa, Oñatikoa eta Bergarakoa. Aretxabaletatik jasoko ditugu Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako eta Aretxabaletako bertako berriak; Oñatiko ordezkarietatik Oñatin sortzen direnak emango dira, eta Bergararik, Elgeta, Antzuola eta Bergarako berriak. Albistegi nagusia eta gainerako programa gehienak Arrasatetik emitituko dira, baina lehen aldi honetan, Aret-

Herrietako berriemaileak

ARETXABALETA



AMAGOIA LASAGABASTER
23 urte. Atxabalta Telebistako aurpegia izan da hasieratik orain arte eta hemendik aurrera berak emango ditu Aretxabaletatik, Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako eta Aretxabaletako bertako berriak GoiTbN. Dokumentalak eta telesaioak gustuko ditu.

ESKORIATZA



LOREA AGIRIANO
21 urte. Informazio Zientzietako azken urtea ikasten. Orain dela lau urtetik "Ze Barri?" Eskoriatzako herri-aldizkarian lanean. Telebistako kirol saioak, "Bertatik bertara" eta "Caiga Quien Caiga" gustuko ditu. Aurkezleen artean, Maddalen Iriarte, Andoni Aizpuru eta Julio Ibarra.

LEINTZ-GATZAGA



AINTZANE GARDOKI
32 urte, arrasatearra, Leintz-Gatzagan bizi da. Urteetan ETBn lanean ibilitakoa eta ATBn ere kolaboratzaile lanetan jardundakoa. "Guganda" saioa aurkezten du ATBn. TVEko bigarreneko gaueko informetiboa eta munduko herrialde eta kulturei buruzko erreportaiak ditu gustuko.

ARAMAIO



ROSA MONDRAGON
33 urte betetzear. "Tu Lankide" aldizkarian egiten du lan. Arrasate Pressen eta ATBn ibilia da -ATBko albistegietako aurkezle izan zen-. Aretxagazetan ere jardun zuen. Lanerako telebista gustuko du, batez ere elkarrizketa saioak. Albistegiak egunero ikusten ditu ETB 1en.

BERGARA



MONIKA BELASTEGI
28 urte, bergararra. Orain arte prentsa idatzia landu du batik bat: Egunkarian, Argian eta Aretxagazetan ibilia da. Gaur egun Berrigararen dabil lanean. ATBn ere asteburuetan aritu da. Telebistan, albistegiak ditu gustuko eta aurkezleen artean Julio Ibarra eta Andoni Aizpuru.

txabaletatik ere sartuko dira zuzenean albistegian. Udazkenetik aurrera, GoiTb bailara osora zabaltzen denean, Bergarako eta Oñatiko ordezkarietatik zuzenean sartzeko aukera ere izango da, baina oraingoz, Aretxabaletatik bakarrik.

UNITATE IBILTARI BERRIA

Goiena Telebistak unitate ibiltaria estreinatuko du astelehenean. GoiTbko arduradun tekniko Jon Aldanondok esan digunez, hemendik lasterrera "bailarako edozein tokitako gertakariak edo ekitaldiak zuzenean eman ahal izango ditugu unitate ibiltariari esker: kirol emanaldiak, kultura ekitaldiak, herrietako festak e.a.". Dударik ez da, jauzi kualitatibo ikaragarria ekarriko du honek, herrietako ordezkarietatik ez ezik, bailarako edozein bazterretik ere zuzenean emittitu ahal izango baita.

Unitate ibiltaria datorren

astelehenean da. Asteleheneetik eguenera bitartean, albistegi bereziak egingo dira herriz herri eta unitate ibiltaria Aramaion, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan izango da albistegi saio bereziok grabatzeko.

ZELAN IKUSI GOITB?

Jon Aldanondo jo eta ke lanean aritu da aste honetan, herrien arteko loturak egiten. Oro har, esan daiteke, GoiTb ikusteko ez dela etxetako telebista aparailuetan ia aldaketarik egin behar, Aramaion izan ezik. Orain arte Arrasaten, Aretxabaletan eta Leintz-Gatzaga ia osoan ATB ikusten zen eta, beraz, asteleheneetik aurrera normal ikusiko da herri horietan GoiTb ere. Ez da kanal aldaketarik egin beharko: lehen ATB ikusten zen kanal berean ikusiko da GoiTb. Eskoriatzan, ostera, ez da ATB ikusten, baina asteleheneetik aurrera GoiTb ikusiko da. Han kable

"Aramaion izan ezik, ez da kanal aldaketarik egin beharko: lehen ATB ikusten zen kanal berean ikusiko da GoiTb"

ALBISTEGIKO AURPEGIA



MAIDER OSA

22 urte, kazetaritzako azken kurtsoa egiten ari da. 1998ko irailetik aurkezten du ATBko albistegia eta, aurrerantzean ere, bera izango da GoiTbko eguneroko albistegiko aurpegia. Orain dela gutxi arte "Astebete" ere berak aurkeztu du. Euskadi Irratian eta Arrasate Irratian ibilia da. "Bertatik bertara" moduko saio bat egingo luke gustura.

bidez lotuta daude etxeak eta, hortaz, kablez eta satelitez hel-tzen dira etxeetara telebista kateak. Aurrerantzean, beste kateekin batera GoiTB ere iritsiko zaie eskoriatzarrei. Telebista seinalea uhinen bitartez helduko da Arrasateetik Eskoriatzaraino, eta behin Eskoriatzan, etxeetara kable bidez. Eskoriatzan, Telesko eta GoiTB, biak ikusiko dituzte, gainerako beste kateekin batera.

Aramaion, azkenik, remisore bat jarriko du Udalak GoiTBko seinalea Arrasateetik bertaraino eraman ahal izateko. Murugainetik bidaliko da. Aramaion orain arte ATB ikusi ez denez, GoiTB ikusteko telebista aparailuetan Goiena Telebista sintonizatu egin beharko dute: UHFko 47. kanalean sintonizatu ahal izango dute GoiTB.

UDAZKENERAKO BAILARA OSORA

Bailara osoko telebista izango denaren zati bat bakarrik hasiko da astelehenean. "Erraztasun gehiago izan ditugu Leintz aldera bakarrik zabaltzeko. Teknikoki samurragoa da, eta inbertsio eta



GoiTB Leintz adarrean astelehenean sortuko dela eta, albistegi bereziak egingo dira datorren astean. Unitate ibiltaria herriz herri ibiliko da eta albistegiak udaletxeen aurrean grabatuko dira arratsalde partean, iluntzeko albistegietan, 20:00etan, emititzeko.

Martitzena, **23**
ARAMAIO

Eguaztena, **24**
ARETXABALETA

Eguena, **25**
ESKORIATZA

Eguakoitza, **26**
LEINTZ-GATZAGA

azpiegitura txikiak eskatzen ditu", esan digu Goienako bateragile Mikel Irizarrek. Beste bi adarrak, Bergarakoa eta Oñatikoa, abiatzeko inbertsio handiagoak egin beharko

dira eta, horretarako, erakunde publikoekin hitzarmenak lotu beharko dira. "Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin izandako harremanak nahikoa aurreratuta daude eta diru-

laguntzak zehaztu ondoren udalei proposamen zehatzak egiteko moduan egongo gara", esan digu Mikel Irizarrek. ■

Eneko Azkarate

ATBTIK GOITBRA

Arrasate Telebistari agur esateko ordua iritsi zaigu. Maiatzaren 21ean ikusiko da azken aldiz izen horrekin. Hortik aurrera GoiTBk hartuko du haren lekukoa.

Hala ere, ez da triste egoteko eguna izango. Arrasate Telebistak egin du egin beharrekoa. Hamar urteko epean geroz eta hobeto landu ditu Arrasateko informazioa eta entretenimentua.

Egunero-egunero albistegia egin du, herriko gertakizunik inportanteenak jasoz. Jende askorentzat horixe izan da informazio iturririk garrantzizkoena.

Eskola ere izan da profesional askorentzat. Gaur egun beste hedabide handiagoetan ari diren kazetari eta teknikari asko hementxe prestatu dira. Heritar askotok ere egin diote beren ekarpena telebistari, programak aurkezten batez ere.

Beste batzuentzat eredu izan den neurrian, lagundu egin du euskarazko herri-telebisten esparrua zabaltzen.

GOITBREN ONURAK

Zer irabaziko du, baina, arrasatearrak GoiTBekin, Goiena Telebistarekin? Arrasateko albiste gutxiago agertuko dira GoiTBren albistegietan, bailarako herrietako berri gehiago landuko direlako. Beraz, zer dago irabazteko?

Goiena Telebistan landuko diren albisteek Debagoiena izango dute esparru. Mondragoeko familia guztiak eskertuko dute hori. Nire ama, adibidez, Gellaoko baserri batean jaio zen eta Angiozarren neskame ibili ostean, Arrasaten ezkondu eta hemen bizi izan da; seme bat Oñatin du, beste bat Bergaran eta

neba-arreba gehienak Aretxabaletan; bi seme-alaba, gainera, Leintz-Gatzagan ezkondu zitzaizkion.

Berak bezala, jende askok ditu interes guñeak inguruko herrietan. Eta jende horrek benetan eskertuko du bailara informazio guñe moduan hartuko duen telebista edukitzea.

Hauxe izango da GoiTBren ekarpenik handienetako bat. Beste bat: Debagoiena osora eta Aramaiora euskara hutsezko telebista eramango duela. Zenbait herritan mesede galanta egingo dio euskararen normalizazioari.

Pozik egoteko moduan gaude, bada. ATB hil da. Gora Goiena Telebista!

*Joxe Aranzabal
GOITBko erredakzio burua*

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Timoftol	2	2	0	0	20	7	4
AC Surkos	2	2	0	10	5	4	4
IKP	2	0	0	2	8	15	0
Garaje Oscar	2	0	0	2	4	15	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Etixerat Taberna	2	2	0	0	13	4	4
Dribling	2	1	0	1	8	7	2
Kanpazar Harrobia	2	1	0	1	4	10	2
Komando Alpargat	2	0	2	7	11	0	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aldibi	2	1	1	0	8	6	3
AT Lokala	2	0	2	0	8	8	2
Orlando Piratas	2	0	2	0	8	8	2
Irati STS	2	0	1	1	6	8	1

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
You Know	2	2	0	0	12	4	4
Branka Taberna	2	1	0	1	14	13	2
DA Iriztu	2	1	0	1	11	14	2
Kamasutra	2	0	0	2	4	10	0



Emaitzak

A taldea

IKP 3 - AC Surkos 4
Timoftol 9 - Garaje Oscar 2

B taldea

Komando Alp. 5 - Etixerat Tab. 4
Dribling 1 - Kanpazar Harrobia 3

D taldea

AT Lokala 4 - Aldibi 4
Orlando Piratas 4 - Irati STS 4

E taldea

Kamasutra 4 - DA Iriztu 7
You Know 9 - Branka Tab. 4



Etixerat - Komando Alpargat

Komando Alpargat taldearen garaipena baino hobea izan zen bi taldeen arteko babajana. Baietz?

Final laurdenak

- A taldeko lehenengoak - D taldeko bigarrenaren aurka = 1
- A taldeko bigarrenak - D taldeko lehenengoaren aurka = 2
- B taldeko lehenengoak - E taldeko bigarrenaren aurka = 3
- B taldeko bigarrenak - E taldeko lehenengoaren aurka = 4

Finalerdiak

- 1 - 3 = A
- 2 - 4 = B

Finalak

A - B

ARRASATE KIROLAK

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Bigarren aldiko 3. jardunaldia

<p>Iarunbata, 20</p> <p>Zaldibar</p> <p>10:50 You Know - DA Iriztu</p> <p>12:00 IKP - Garaje Oscar</p> <p>13:00 Orlando Piratas - Dribling</p> <p>15:50 Timoftol - AC Surkos</p> <p>17:00 Irati STS - AT Lokala</p> <p>18:00 Etixerat Tab. - Dribling</p>	<p>igandea, 21</p> <p>Zaldibar</p> <p>11:50 Branka Tab. - Kamasutra</p> <p>13:00 Komando Alpargat - Kanpazar Harrobia</p>
---	---



Orain
SOLARIUMeko
10 saio 6.000 pta.



Gorka Ileapaintzaileak
ORDUTEGI BERRIA:

Astelehetan itxita
Asteartetik ostiralera: 09:30-20:00
larunbatetan: 08:00-14:30

Barkatu eragozpenak.
Eskerrik asko

*Gorka
Pequeños*

Itxuraz aldatu nahi baduzu,
geure aholkularitza daukazu:
GORKA ILEAPINTZAILEAK.
Ez badakizu zer egin ilearekin
zatoz eta galde iezaiguzu.
Desberdin irtengo zara!



Ferrerias kalea,
35, behea • Arrasate
Tel.: 943 77 13 78



Graduatutako
eguzkitako
betaurrekoak

9.500 pta-tik
aurrera



ESKLUSIBAN

Scooter 1
DENDA BAKOITZEKO
Zozketa

5.000 PZTAKO EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT

R.P.S. 16499 zklia.

MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

Estetikaren azken teknologia orain zure esku LIRAINen.

Kosmetika pertsonala

Azal guztiak desberdinak direla jakinda, zergatik erosi besteen krema berdina?

Bakoitzaren azala desberdina delako, diagnostiko zuzen bat egitea ezinbestekoa da. Orain, LIRAINen, mikrokamara baten bitartez, zure azalaren irudia telebista batera pasatzen dugu, baina 100 aldiz haundituta. Horrela, diagnostiko zuzena egin ondoren osagai aktiboak dituzten krema desberdinen nahasketa egiten dugu, zure azalaren beharretara egokituz, formula pertsonala duen krema bakarra osatuz. Emaitza askoz ere hobea lortuko duzu! Egin ezazu orain diagnostikoa doan!



DIAGNOSTIKOA



OSAGAI AKTIBOAK



FORMULA PERTSONALA

Gorputz tratamenduak

Ostar: udari begira gorputza moldatzeko azken aukera.

Uda datorrela eta arropa arinagoak jartzen ditugunean, nahiko ez genukeen atalak biztan geratzen dira. Horregatik, **OSTAR** makinaren bitartez, arazo hauei irtenbidea emateko azken aukera dugu. **OSTAR**ak aukera desberdinak ematen dizkigu eta bere emaitzak saio gutxieren ostean igartzen dira.

- Drenaje linfatikoa
- Zeluliti aurkakoa
- Erreafirmatzailea

Saio bakoitza
3.900 pta.!



Solariuma: zutikakoa eta etzandakoa (dutxarekin)

Emaitza hobek lortzeko eta zure osasuna zaintzeko lanparak aldatu berriak dira eta CEEK eskatzen dituen arau guztiak betetzen ditugu LIRAINen.

10 saio + 1doan 9.000 pta.
(bazkideek %10eko beherapena).

Fotodepilazioa

Multidiodo™: laser medikoan azken aurrerapena. Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe!



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA



Urteko azken mendi irteera

Larunbatean Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoez aurtengo kurtsoko azken mendi irteera egingo dute. Zortzi egin dituzte aurten eta guztietan, begiraleek adierazi digutenez, jende dezente hartu du parte. "Ikastetxe bakoitzeko lagun talde bana joan da eta erregularra izan da oso euren partehartzea". Mendi irteerak Besaide Mendi Elkar-tearekin batera egin dituzte AKPkoek. Besaideko bi kide ibili dira mendi irteerak antolatzen eta umeendako egokienak ziren ibilbideak aukeratzen. Zortzi irteera hauetan Euskal Herriko hainbat gailur ezagutzeko aukera izan dute (Leungane, Murugain, Aitzorrotz, Durakogain, Aumategi eta Aralar) eta larunbatean ere horretarako aukera izango dute. Psikomotrizitatean dabil-tzan haurrek ere Arrasate inguruko parajeetatik mendi buelta bat emateko aukera izango dute. Ibilbidea motza izango da eta euren adinari egokitu-

takoa. Autobusa goizeko 10etan irtengo da Iturripetik. Eguraldi ona eginez gero, ibilaldi polita egiteko aukera izango duzue bada. Aprobe-txatu!

Horrekin lotuta, Gipuzkoako Mendi Federazioak ikasturte amaierako jaia antolatzen du mendigoizaleenda-ko: Finalista Eguna: mendi buelta txiki bat eman ondoren, hainbat opari zotz egingo dira eta urte osoan ekin-tzetara joan direnendako oroi-garriak ere banatzen dira.

INFANTILETAN HAINBAT FINAL

Larunbatean amaituko dira aurtengo norgehiagokak AKPko haurrentzat, hurrengo asteburuan azken jaia izango dute eta.

Saskibaloia eta futboleko infantilak ari dira oraindik jokoan. 12 eta 13 urte arteko neska-mutikoez San Viatorren, Atxabalpen eta Musakolan jokatu dute.

Mutilen saskibaloiko tal-



Larunbatean goizeko 10:00etan irtengo dira mendirantz.

deek, esaterako, bailarako Udaberri Txapelketako finala jokatu dute San Viatorren, urteari amaiera txukuna emanaz. Neskek, berriz, txapelketako azken neurketa izango dute. Txapelketa hau irabazteko aukera handiak ditu San Viatorreko nesken saskibaloia taldeak. Almenen aurka arituko dira.

Futboleko ere, txukun dabilta gure taldeak Udaberriko Txapelketan. Bai neskek eta baita mutilak ere partida

baten faltan daude eta irabazteko aukera handiak dituzte.

Bestelako kirolak ere egongo da asteburuan. Aurrekirolean daudenak pilotan arituko dira. Goizeko 10etan Iturripen elkartuko dira. Eta ordu berean elkartuko dira multi-kiroleko atletak ere, infantilak, hain zuzen ere; Atletismoko probak dituzte eta bertan arituko dira Arrasate Kirolak Atletico Taldeko entrena-tzailearekin. hauek ere Iturripen arituko dira.

Asteburuko hitzorduak Maiatzak 20, larunbata

PSIKOMOTRIZITATEA

Iturripen

10:00 Mendi irteera

AURREKIROLA

Iturripen

10:00 Pilota jardunaldia

MULTIKIROLA

Iturripen

10:00 Jardunaldi berezia; (Atletismoa, eskubaloia eta futbola)

INFANTILAK

SASKIBALOA

MUTILAK

San Viator

11:30 Arrasate A - S. Viator
Arrasate B Atsedena

NESKAK

San Viator

10:30 S. Viator - Almen

FUTBOLA

NESKAK

Atxabalpe

10:00 S. Viator - Torrebaso
09:00 SFX B - Aranzadi A

MUTILAK


Musakola

10:00 SFX - Aranzadi



Atletismo taldeko infantilak.


TXIRRINDULARITZA Gipuzkoako txapelketa

 Fagor taldeko gazteek Mutrikun izan zuten lasterketa asteburuan eta Aitor Frutos izan zen mondragoetarren artean azkarrena. 45. gelditu zen. Larunbatean Oartzungo Klasikoa izango dute jokoan.

Lehen eta bigarren urteko kadeteak Zarautzen aritu ziren XI. Zarautzarraren sarian. JMA taldeko Aitor Elorza zazpigarren helmugaratu zen.

Aste honetan lehen eta bigarren urteko kadeteak elkarrekin arituko dira berriz ere, Gipuzkoako Linea Txapelketa jokatu dute, Lazkaon, igandean.

ESKUBALOIA Etxean galdu



Arrasate Almen taldekoek ez zuten ez arerio makala izan larunbatean.

Mutrikuko Jauja taldea indartsuago kantxaratu zen. Lehen zatian mutrikuarrek 14 gol sartu zituzten; etxekoek 5 aldiz zulatu zuten kanpotarren atea. Mutrikuarren atezaina fin ibili zen oso. 2. zatian kanpotarrek erraztasunez iritsi ziren gora, eta golak bata bestearen segidan etorri ziren. Kanpotarren defentsa serioari esker Arrasatearrek ezin izan zituzten beste askotan lortzen dituzten golak eta partida Jaujak hamazazpi eta hogeita zortzi irabazi zuen. Aste honetan Tolosan arituko dira.

PILOTA 3 eta 0 irabazi



Joan den ostiralean Aizarnazabalen aurka jokatu zuten herriko pilotarietarik. Oso emaitza bikainak lortu zituzten gainera. 3 eta 0 irabazi zuten. Kadetetan, Uribarren eta Jimenezek Sean utzi zituzten aizarnazabaldarrak. Uribarren oso ondo ibili zen eta igandean ere 22 eta 1 irabazi zuen Santa Luzia txapelketan. Abasolo bikote zuela Aretxabaletaren aurka jokatu zuten Gasteizen. Gazte mailan, Jimenezek eta Dominguezek 22 eta 9 irabazi zuten. Seniorretan, Zugastik 22 eta 13 irabazi zuten.

Ostiralean itzulikoak jokatuko dituzte Aizarnazabalen.

XAKEA Bosgarren



Aretxabaletako xake taldea, Arlurtz, izan zen San Isidrotako xake txapelketako irabazlea. Laukoteak lortu zitezkeen 52 puntuetatik 46 lortu zituen eta azkenengo partida jokatu aurretik, jadanik, txapelkunak zirela zekiten. Atxabalatarrak euskal liga jokatzeko ari dira.

Sekulako beroa egin zuen arren, hamalau taldek jokatu zuten San Antolinen.

Arrasateetik lau talde aritu ziren. Hauetako bat, A taldea, bosgarren gelditu zen. Taldea Txema Hernandok, Josu Tornayk, Isidro Ruizek eta Roberto Villarrek osatu zuten, San Andres taldeko laukotea.

Emaitzak

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Arrasate Almen 17 - Jauja Mutrikua 28
- **Gazteak:**
Bergara 32 - Arrasate 32
- **Kadeteak:**
Arrasate 9 - Almen-Jakion 20

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:**
Ilintxa 3 - Mondra 1
- **Ohorezko gazteak:**
Beasain 3 - Mondra 3
- **Bigarren mailako gazteak:**
Mariaren Bihotza 1 - Arrasate 2

• Ohorezko kadeteak:

- Urola 3 - Arrasate 2
- **Bigarren kadeteak:**
Azpeiti - Arrasate
- **Ohorezko infantilak:**
Aloña Mendi - Arrasate
- **Lehen erregionala, neskek:** Antoniano 4 - Mondra 0

SASKIBALOIA

- **Junior:**
Kenci Arrasate - Betiko
- **Kadeteak, neskek:**
Irurok - Kenci Arrasate
- **Kadeteak, mutilak:**
Irurok - Kenci Arrasate

Jokatzekoak

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:**
Tolosa - Arrasate Almen
- **Gazteak:**
Arrate - Arrasate
- **Kadeteak:**
Almen - Arrasate

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:**
Mondra - Elgoibar, larunbata, 17:00.
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra - San Martzial, igandea, 16:30.
- **Bigarren mailako gazteak:**
Arrasate - Behobia, igandea, 12:00.

• Ohorezko kadeteak:

- Arrasate - Mariño, larunbata, 12:30.
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate - Lengokoak, igandea, 10:00.

SASKIBALOIA

- **Kadeteak, mutilak:**
Kenci Arrasate - Nere Sport, larunbata, 12:15.

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Arrasate-Oñati: euskararen krosa

Igandean izango da Laixan Euskara Elkarteak antolatu duen Arrasate-Oñati herri-krosa. 18. aldiz egingo da lasterketa, baina "Jantzi Kirola Euskaraz" leloarekin, 8. aldiz.

Ibilbidea: Arrasateko Portaloitik Oñatiko plazaraino nagusiek eta Zubillagatik Oñatiko plazaraino gaztetxoek. 11,3 eta 4 kilometrotako ibilbideak.



lasterketa 11:00etan hasiko da Portaloian.

OMENALDIA

Ibilbidea laburragoa delako errekor berria ezartzeko aukera, egongo da eta, honekin batera diru saria eskuratzeko aukera. Orain artekoa Diego Gartzia da (1984an,

34'25"ko denbora egin zuen). Eta berari omenaldia egingo diote, aurten profesional maila utziko duela eta. Nagusiak Portaloitik irtengo dira igan-

dean, 11:00ean. Izena ematea egunean bertan izango da, 1.000 pezetan. 16 urtetik beherakoak Zubillagatik irtengo dira 10:00etan.

Urrea eta zilarra Mondragoera

Urrezko bi domina eta zilarrezko beste bat irabazi zuten Arrasate Kirolak Atletico Taldeko alebinek. Ordizian Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten. Lander Errastik eta Ander Trojaolak urrezko domina bana ekarri zuten. Lander luzera jauzia aritu zen eta 4,57 metroko jauzia egin zuen. Ander Trojaolak 9'80ko denboran egin zuen 60 metro-

ko hesi lasterketa.

Zilarrezko domina lauokote batek irabazi zuen. 4x60 lasterketan, Ibai Martin, Lander Errasti, Ander Trojaola eta Adrian Ramirez aritu ziren eta urrea lortzetik 7 ehuneko-etera gelditu ziren.

Larunbatean gaztetxoek txanda izango da. Iturripen arituko dira, 10:00etan. Promotzio probak izango dira.

Uarkape

Aspe enpresak eskuz binakako bi pilota partida antolatu ditu datorren ostiralerako. Muruamendiaraz eta Otxandorena batetik, eta Del Rey eta Auskin bestetik. Estelarrean, berriz, Titin III eta Berna, Etxaniz eta Elkororen aurka. Partidak 22:30ean hasiko dira. Giroa ziurtatuta dago: bi neurketetan errioxarrak eta bergarrak arituko dira aurrez aurre.

Fronteniseko azpitxapeldunak

Candido Hurtado eta Jose Izquierdo mondagoetarrak dira Udaberriko IV. Frontenis Txapelketako azpitxapeldunak. Joan den larunbatean 33 eta 35 galdu zuten Xabier Albizua eta Patxi Vallejos bergararren aurka. Aurten 30 bikote ibili dira lehian; hurrengo txapelketa Oñatin izango da. Izan ere, txapelketa hauek Debagoieneko sailkapenerako baliagarriak dira.



Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeke.



Aurreko osteko erantzuna: Inurrategi anatek Manaslu gailurra lortu zuten.
Galdera: Uztaillean Inurrategi anaiak bi zortzimilakotara igoko dira. Zeintzutara?

Erantzundi:
Izen-abizenak:
Helbidea: Tel.:

BALENTIN TRAMON (PUTZ ALDIZKARIA)

“Gure asmoa taldea z

Gesalibarko mutila da “Balén”, eta Putz sortu zenetik ari da buru-belarri proiektu horretan. Kultura, literatura, umorea, politika eta sorkuntza azpimarratzen ditu Putz aldizkari-ko osagai nagusi bezala, eta aldizkariarekin identifikatzen diren guztiei dei egin nahi die: hurbil daitezela “Putz-kide-engan”, beraien laguntza eskaintzera.

— Zein helbururekin eta nori zuzenduta sortu duzue Putz?

— Putz egiteko elkartu ginenok bagenuen lehendik ere harreman txiki bat aldizkari-gintzarekin. Ez gara profesionalak, baina bai zaleak, eta guztiok ezagutzen genuen elkar. Kontuan izanda euskaraz aldizkari-gintzan dagoen hutsunea, kiosko batean egon daitekeen euskarazko aldizkari bat sortu nahi genuen. Gaztelaniaz hego Euskal Herrian oso eskaintza handia dago aldiz-

karietan. Abalantxa horri tiritata bat ipini nahi izan diogu. Dena den, gure ametsa taldea zabaldu eta askoz ere eragin-korragoa den zerbait sortzea litzateke.

— Zenbatek diharduzue lanean?

— Zazpi-zortziko talde bat hasi ginen, baina arrazoi ezberdinengatik oinarrizko talde hori murriztu egin da. Dedikazio osoarekin Diego Martiartuk dihardu lanean, eta Jon Etxebarria arduratzen da maketazioaz. Beste hiruzpatalau lagun gertutik ari dira laguntzen, eta poliki-poliki Euskal Herri osora ari gara zabaltzen sarea, Euskal Herri osora zuzendutako aldizkaria da eta. Arazo ekonomikoak tarteko, ezin izan gara heldu guk nahi izan dugun gauza guztiak egitera, baina aurrera goaz.

— Kolaboratzaileak ere

badituzue, baina.

— Bai. Orain arteko zenbakietan Pako Aristik, Mikel Markezek, Asier Serranok, Pelmanek eta abarrek kolaboratu dute.


— Nolako harrera izan du arrasatearren artean?

— Jende askok babestu gaitu Arrasate eta inguruetan. Pena da Udalak laguntza sin-

boliko bat soilik eman digula, eta Euskadiko Kutxak hori ere ez. Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, traba

dezente jartzen dizkiete sortu berri diren produktuei. Inguruko enpresa batzuek lagundu digute, eta beste jarrera bat antzematen zaie. Batez ere alde zaharreko tabernariei, publikitate ugari egin baitute orain arteko zenbakietan.

“Gaztelaniazko aldizkari-
en eskaintza handia dago hego Euskal Herrian. Horri tiritata bat ipini nahi izan diogu”



baltzea da”

— **Eta Arrasatetik kanpo?**

— Zailagoa da, gu arduratzen baikara banaketarekin. Euskal produktu bat inongo aita pontekorik gabe kaleratzen denean, gauzak poliki egin beharra dago. Salmenta puntuak aukeratzen saiatzen gara.

— **Bihilabetekaria da Putz. Ez da tarte handiegia?**

— Gure asmoa hilabetekari bihurtzea da, baina oraingoz nahikoa lan dugu bihilabetekaria izaten saiatzen. 2001. urterako eman nahi dugu jauzi hori, baina ikusiko dugu tarteke sei hilabeteetan zer ger-

tatzen den. Horren arabera izango da azken erabakia.

— **Lehen zenbakiko azala oso ausarta zen. Deigarriak izan nahi zenuten?**

— Ausartak izan nahi dugu, baina ez dakit lortzen dugun. Hori alde batetik. Euskal prentsan nabari da, gainera, ausardia falta hori. Bestetik, berriz, emakumeari tratamendu berezia eman genion lehen aleko azalean. Gizarteak eskaintzen dion betiko bideetik urrundu nahi izan genuen. Bigarreneko azalean bromarekin segitu nahi izan genuen.

— **Gizartea kritikatzan duzue. Nolakoa litzateke gizarte ideala Putzekoentzat?**

— Sekula ez da egongo gizarte idealik. Gizarte progresista, aurrerakoa... litzateke eredugarria. Gu euskal gizarteaz arduratzen garenez, hemengo gauza onak txalotu eta gustuko ez ditugunak kritikatu egiten ditugu, baina asmo onenarekin.

— **Sexuak ere leku dezentetu du Putzen.**

— Eguneroko prentsan ez da lantzen gai hori. Guk ez dugu hori bereziki landu

nahi, baina hori ere jorratu nahi dugu beste gauza batzuren artean. Atentzioa ematen du, ez gauza normala ez delako, baizik eta orain arte egon ez delako. Guri beste gauza batzuren artean interesatzen zaigu sexua, eta ukitu egin nahi dugu gai hori, kutsu umoristiko edo ludikoa emanez.

— **Putzen harpide izan nahi duenak zer egin dezake?**

— Arrasateko 168 postakutxara edo putz@euskalnet.net helbidera idatz dezake.

UGARTE
A R O Z T E G I A
 Apainketa • Altzariak
 Ateak • Armairuak

San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91

Mugarriz mugarri, Arrasate ezagutzen


Arrasate herri handiegia ez den arren, askorentzat ezezagunak dira bere paisaia eta historia-ondareak. Hori dela eta, AEDk Mugarriz mugarri egitasmoa antolatu du domeka honetarako.

Orain bi urte sortu zen asmo hori. Helburua, ondokoa: mendizaletasuna eta kultura uztartuz, Mondragoe apur bat hobeto ezagutzea.

1998an, hiru eguneko ibilaldia egin zuten, baina hori larregikoa zela eta, iaz egun bakarrekota egitea erabaki zuten, eta Udala eta Meatzerekkara joan ziren urrian. Orain, Garagartza aukeratu dute, eta arkeologia izango da ardatza.

IBILBIDEA

Kobaundi izango da lehen geldiunea; kondairaren arabera, laminen bizileku. Ondoren, Bostate baserriaren arrastoak ikusiko dituzte. Handik, Garagartza eta San Andres arteko bailara eta Aloña eta Kurtzebarri mendiak ikusten dira. Hurrengo, Arrasateko kobarik ezagunena: Leze-Txiki, non orain 80.000 urteko arbasoen aztarnak behatuko dituzten.



Arkeologia eta paisaia uztartzen ditu Leze-Txikik.

Arkeologiatik paisaia altxorrek mirestera pasako dira, gutxitan ikus daitezkeen arbolak aurkituko baitituzte Madarixan. Arlabango

zubi naturala igaro ondoren, Lizuetako koba eta Bostateko iturria bisitatu, kotxea hartu eta etxera bueltatuko dira, bazkalordu inguruan.

Julio Galarta Interneten

Eusko Ikaskuntza erakundeak egiten duen Eusko-news&Media web aldizkariaren 78. zenbakia sarean dago, eta bertako arte-aretoa atala Arrasateko Julio Galarta margolariari eskaini dio oraingoan. Bi astez izango dira ikusgai orri horretan Julio-ren hainbat margo.

Artista figuratiboa da Galarta, inpresionismo ikutuarekin. Paisaiak eta herriak margotzen ditu gehienetan, horien artean Arrasate. Marrakzi zehatza eta fina da berea, eta koloreen ñabardurak, apartak. Egiaztatu nahi baduzue, ondoko internet orrian aurkituko duzue: www.eusko-ikaskuntza.org/euskonews/artaretoa/index.html.

Goikobalu Logroñon

Logroñoeko Orfeoia antolatu dituen XVIII. Musika Korala Zikloak Arrasateko Goikobalu abesbatza izan du gonbidatu. Joan den larunbatean kontzertua eskaini zuten arrasatearrek Logroñoeko Auditoriumean, eta arrakasta handia izan zuten. Publiko ugari bildu zen antzokian, artean Logroñon bizi diren arrasatear ugari. Aurkezpenean, Goikobalu Euskal Herriko punta-puntako abesbatza dela aitortu zuten antolatzaileek.

Ez da mondragoetarrak Logroñon dauden lehen aldia, baina bai hango Orfeoia gonbidatuta doazen aurrenekoa. Hamabost abesti jokatu zituzten, eta hainbeste txalo jaso zuten, beste bi propina moduan eskaini zituzten.

Garibai omenduz

Esteban Garibai Zamalloa historialari arrasatearra hil zela 400 urte dira. Hori dela eta, herritar ospetsu hau eta bere garaia hobeto ezagutzeko, hitzaldi ziklo bat antolatu dute Eusko Ikaskuntzak eta Arrasateko Udalak.

Ez da gutxiagorako, askok garrantzi handienerako euskal historialaritzat jotzen baitute Garibai. Errege-kronista eta herriko alkatea izan zen, besteak beste, eta historia eta

genealogia alorreko obra asko egin zituen.

Bere nortasuna, bere garaiko giza eta ekonomia egoera, Mondragoeren sorketa eta Erdi Aroko euskal historiografia mamituko dira. Hitzaldi horiek Udaltzeko Pleno Aretoan izango dira, 19:30ean, astelehenetik ostegunera. Ostiralean, Arrasateko Udalak argitaratutako "Las Memorias de Esteban de Garibay y Zamalloa" liburua aurkeztuko da.



ANDONI MUJIKA (IKAZOKAKO ZUZENDARIA)

“Euskal hezkuntzan sarrera zuzena ematen du Ikazokak”

Andoni Mujika 36 urteko durangarra dugu, Arrasaten ezkondua. Ibaizabal ikastola kooperatibako kide da, eta kooperatibaren babespean sortu den Ikazoka egitasmoaren zuzendari da. Maiatzaren 18tik 21era egongo da zabalik Ikazoka Durangon.

—Zer da Ikazoka egitasmoa?


—Ibaizabal kooperatibak hezkuntzaren hainbat eremutan egiten du lan, eta euskalgintza eta kooperatibismoaren baloreen inguruan hainbat proiektu sustatzen ditu. Departamentu bat sortu zen Ibaizabalen merkatal proiektuak antolatzeko, eta Ikazoka da lehen emaitza. Hezkuntza eta kultura munduko hainbat erakundek bultzatu dute azoka hau. Ikastola mugimenduaren onespina hasieratik izan du.

—Zeintzuk dira Ikazokaren helburuak?

—Lehenik eta behin, hezkuntzaren alor guztiak erakustoki berean biltzea, eta sektore horrek ematen dituen produktu guztiak aurkeztea. Zentzu horretan, euskal hezkuntzaren sektorera sarrera zuzen-zuzena ematen du Ikazokak. Gainera, euskara eta euskal izaera esparru berrietara hedatu nahi dugu: lana, goi mailako irakaskuntza... Azkenik, bereziki Euskal Herrirako erakustazoka ekimen berria sortzea. Orain arte, azoka orokorrak izan ditugu eta guk azoka espezifikokoak sortzea nahi dugu.

—Zer ikusi ahal izango dugu Ikazokan?

—Bi motatako edukiak izango dira. Alde batetik, merkataritza ardatz bezala



hartuz, produktu erakusketa izango da. Hezkuntza zentroekin zerikusia duten sektore guztiak izango dira ikusgai: testu liburuak, informatika, kirol produktuak, teknologia... Gazteek dituzten hezkuntza aukera anitzak ere erakutsiko ditugu. Baina, hezkuntzaren inguruko azoka den neurrian, formakuntza eta eztabaida gunea ere izango da.

—Zeintzuk dira euskal hezkuntzan pil-pilean dauden gaiak?

—Adibidez, selektibitatearen etorkizuna, hiru urterainoko haurrak eskolaratzea komeni den edo ez. Euskal eskola ereduak ere gai interesgarria da, gure ustez, eta horiek guztiak Ikazokan landuko ditugu. Hala ere, hezkuntzarekin lotuta, baina interes orokorragoa duten gaiak ere mamituko ditugu: haur eta gazteentzako literatura, drogamenpekotasuna, giza baloreak, eta abar. Hizlari eta gonbidatu bezala, Jose Maria Setien gotzain ohia, Ramon Zallo eta Jose Antonio Marina unibertsitate irakasleak eta beste hainbat izango dira.

“Euskal Herrirako erakustazoka ekimen berria sortu nahi dugu”

aste gazte

■ AUZOLANDEGIAK

• SCI Madrilgo elkarteak urtero antolatzen dituen auzolandegien informazioa jaso dugu. Mundu guztian zehar kokatutako lurraldeetan lan boluntarioak egiteko aukera.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Debarroko Udalek deituta, kirol materialak euskaraz sortzeko bekak. Epea: ekainak 1.
• Kanpo merkataritza alorrean prestakuntza egiteko bekak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, unibertsitate ikasketak bukatuta dituztenendako. Epea: ekainak 3.

■ LANA

• Gernika-Lumoko Udalak kontu-hartzailea behar du. Epea: maiatzak 29.
• Ibarra Udalean itzultzailea behar da. Epea: maiatzak 29.
• Nafarroako Erkidegorako liburutegi arduradunak behar dira. Epea: ekainak 7.

■ LEHIAKETAK

• Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak, mendia eta ingurumena gaitzat hartuz, diapositiba lehiaketa antolatu du. Epea: ekainak 12.
• Gasteizko Indar Kultura Zentroak “Gaztebideo”, gazteen bideo amateurraren VIII. Erakustaldia antolatu du. 99-2000. urte bitartean egindako lanak, 20 minututik beherakoak eta antzezle gehienek 21 urtez beherakoak izan beharko dute. Epea: uztailak 31.
• Nafarroako ikus-entzunezkoen sorkuntza lehiaketa, 98tik aurrera bideoan edo CD-ROMean grabatutako lan artistikoak edo interneteko proiektu artistikoak aurkeztu ahal dira. Epea: irailak 15.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

asteko filma



Un Domingo Cualquiera

(Any Given Sunday). EEBB, 1999. Akzioa. **Zuzendaria:** Oliver Stone. **Aktoreak:** Al Pacino, Cameron Diaz, Dennis Quaid.

HARIA

Tony D'Amato futbol amerikar talde baten entrenatzailea da. Garai batean talde handia izan zen, eta orduko jokalaririk mitiko batzuek jokatzeko dihardute. Baina, orain maila galtzeko zorian dabilta. Bat-batean, jokalaririk gazte batek txundituta uzten ditu publikoa, taldeko lehendakaria eta kazetariak. Eta D'Amato jokalaririk zaharrekiko leialtasunaren eta irabazteko premiaren artean geratzen da.

KRITIKA

Kirol hau arrotza zaigu europarroi, baina film hau ez da kirol hori goraiatzeko dokumentala. Kirol orori etor dakioken errealitatea erakusten du: kirola espektakulua da, eta konpainia handiek eta kirolaz gutxi dakiten enpresariak agintzen dute. Mezua interesgarria den arren, gehiegi luzatzen da Stone kontakizunean, eta noizbehinka indarra galtzen du filmak. Hori bai, aparteko musika du.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK. Maiatzak 26: **Misery Loves Co.**

+ **II This + Earthtone9**

Maiatzak 27: **Peter & the Test Tube Babies**

Egun bakoitzerako **3** sarrera zozketatzen ditugu.

Kontzertuetarako irabazleak gaur gauean Soinuz Blaien. Txartelak ekartzeko azken eguna: ASTEAZKENA

Izen-deiturak:

Tel.: Eguna:

irakurle eta entzule

diskoak

OSKORRI

"Ura". Elkarlanean.



Herrikoitasuna eta unibertsalitatea, lehenengo publikoari eutsi baina jende berria erakartzearen alde apustua egin. Itxuraz aurkakoak diren hainbat alderdi uztartzen ditu *Oskorri* taldeak bere 23. diskoan. Bost urtetan talde bilbotarrak ematen duen jatorrizko lehen diskoa da, hainbat urte abesti tradizionalak lantzen ibili ondoren, sormenari eta proposamen berriei dagokien tarte itzuli nahi baitzien *Oskorri*rik. 25 urtetik gora daramatzate *Oskorri*koek musika munduan, eta "Landalan"en ondoren, disko landu eta berezia egin nahi zuten. Horretarako, *Kepa Junkera*, *Michel Bordeleau*, *Glen Velez* edo *Ivo Papasov* bezalako musikari handien kolaborazioa izan dute. Ikutu berritzaile bada-go, baina ez erro aldaketarik.

liburuak

OSTIRALAK

Jon Arretxe

Elkarlanean. 135 or.



Ostegunak ipuin bildumak izan zuen arrakastaren ondoren, asteko hurrengo eguna izenburu duen beste kontakizun batzuekin dator kigu Arretxe basurriarra. Sei ipuin hauek ikasle

garaia amaitu berri duten protagonistak dituzte. Ondo pasatzea, ligatzea eta ahalik eta lan gutxien eginda bizitzea dute helburu, eta jokaera horiek sortzen dituzten xelebrekeriak dira ipuinon ardatza. Gaur egungo gazte batzuen pentsamoldeaz barre egiten du Arretxek, eta gustura irakurtzen diren ipuin arinak dira horren emaitza.

asteburuan zer

kontzertuak

STIFF LITTLE FINGERS JAMEN



Orain 23 urte eratu zen *Stiff Little Fingers* talde irlandarra, eta hainbat gorabeheraren ondoren, disko berri batekin dator kigu, "Tinderbox" izeneko. Hori dela eta, kontzertu sorta bati ekin diote SLF taldekoek.

Punk estiloko musikan zeresan ugari izan du SLF laukoteak. Estreinu diskoak, "Inflammable Material", punkaren klasikoetako bat da. Ondoren, aldi onak eta okerragoak pasa dituzte, baina musi-

ka egiten jarraitu nahi dutela eta, urte hauen buruan hasieran bezain gogotsu dihardutela erakutsi nahi digute. Bergarako Jamen izango dira, 19an, 20:00etan. *Stiff Little Fingers* ikustera joango direnak honako hauek dira: Mikel Zubizarreta, Unai Ibañe eta Txomin Gartzia Uriarte.

INDIE-BRIT DOINUAK IAMAIN

Kontzezino kaleko Iamai kafetegiak talde berriei aukera eman nahi die. Hori dela eta, hilerokoz zuzeneko kontzertu bati ematen dio ostatu. Ostiral honetan, 22:30ean, izango da Iamaiko bigarren zuzeneko emanaldia. Oraingo gonbidatua Gasteizko *Cartis* taldea da. Iaz eratu zen laukotea, eta Iamaikoa izango da euren lehen kontzertua. Indie-brit tankeko pop doinuak jorratzen dituzte, eta abeslariak oso ahots ona du.



egunez egun

ASTELEHENA, 22

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
 Mari Karmen Telleria,
 Garoa jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Astebete** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Goienasport.**
 22:00 **Gatza eta Berakatz**
 (errepika).

Maurizio Uharteak
 landuko dira.
 22:00 **Gatza eta Berakatz**
 (errepika).

ASTEAZKENA, 24

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
 Bixente Pagoaga,
 Mitartegarai jatetxeko
 sukaldaria.
 13:50 **Hamaika Magazin**
 (errepika).
 20:00/20:30 **Berriak.**
 21:00 **Mahaingurua.**
 21:30 **Aurrez Aurre** (errepika).
 22:00 **Gatza eta Berakatz**
 (errepika).

ASTEARTEA, 23

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
 Igor Ezpeleta, Elizondo
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Goienasport** (errepika).
 19:20 **Jolasplast.**
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Hamaika Magazin.** Sexu
 menpekotasuna,
 masajeak nola eta noiz
 eman, Sorolla margola-
 ria, krisantemoak eta

OSTEGUNA, 25

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
 Eulali Maskiaran,
 Matikua jatetxeko

sukaldaria.
 13:50 **Aurrez Aurre** (errepika).
 20:00/20:30 **Berriak.**
 21:00 **Mahaingurua.**
 21:30 **Guganda.**
 22:00 **Gatza eta Berakatz**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai.** Miren
 Gonzalezekin.

OSTIRALA, 26

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
 Alberto Elorza, Zelai
 Zabal jatetxetik.
 13:50 **Guganda** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.** Asteko
 albisterik nabarmenenak,
 Eneko Azkaratek
 aurkeztua.
 22:00 **Gatza eta Berakatz**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

arrasate
 irratia



ASTELEHENETIK OSTIRALERA

09:00 **Albisteak.**
 09:30 **Goizoro magazina.**
 11:00 **Formula 10.**
 12:00 **Zeu be bai.**
 14:30-18:00 Goizeko saioen
 errepika.

ASTELEHENA

20:00 **Draxtor.**
 21:00 **In Session.**

ASTEARTEA

20:00 **Hi bizi hadi!**
 21:00 **Euskal Festa.**

ASTEAZKENA

20:00 **To musika!**
 21:00 **KK2A.**

OSTEGUNA

20:00 **Ostegunero.**
 21:00 **Musika.**

OSTIRALA

20:00 **Planning prest!**
 21:00 **Kale doinuak.**

LARUNBATA

10:00 **Jakinguraz beteta.**
 11:00 **Zoroklasikoak.**
 12:00 **Bi zoro ta zu!**

ATB REN AZKEN EGUNAK

OSTIRALA, 19

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatz.**
 Aitor Aizpurua, Iturritxo
 jatetxeko sukaldaria.
 13:50 **Zortziko Txikian**
 (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.**
 Asteko albisterik
 nabarmenenak, Eneko
 Azkaratek aurkeztua.
 22:00 **Gatza eta Berakatz**
 (errepika).
 22:15 **Soinuz Blai**
 (errepika).

LARUNBATA, 20

13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatz, Hamaika Magazin, Musakolako Jaiak, Zortziko Txikian, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 21

13:30 Asteko saioen errepika:
Jolasplast, Gatza eta Berakatz, Hamaika Magazin, Musakolako Jaiak, Zortziko Txikian, Soinuz Blai, Astebete.

Gatza eta Berakatz

PLATERAK: Postreak

Astelehena 22

Gatza eta intxaur flana.

Asteartea 23

Intxaur eta mahaspasa tarta.

Asteazkena 24

Gatzatua.

Osteguna 25

Fruta tarta.

Ostirala 26

Fruta zopa.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Meatzerrekan guztiz berritutako baserria salgai, luxuzkoa. "Aitazpi" izena du baserriak. Tel.: 943 79 70 25.

- Etxea salgai, 45 m²koa zentroan. Konponketak egiteko. Tel.: 943 79 81 25. Gaez.

- Ekainean Donostian apartamentua alokagai. Hondartzatik gertu, 3/4 pertsonarendako. Tel.: 943 79 82 47, iluntzean. 943 71 96 29, lanorduetan.

- Etxea salgai Arrasaten. 4 logela, egongela eta berogailua. Tel.: 943 79 80 99, 627 33 33 41.

2. Erosi

- Etxe bat erosiko nuke herri erdian, igogailuduna. Tel.: 943 79 81 25. 20:00etatik aurrera.

- Etxebizitza erosi nahi dugu Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

3. Errentan emateko

- Oropesa del Marren, Castellonen, apartamentuak alokagai udan. Tel.: 964 31 08 55.

- Donostian (Antiguon) etxea alokatzen da, uztaila eta iraillean. Hondartzatik 200 metrora. Tel.: 943 79 82 05 (21:00etatik aurrera).

- Laredon apartamentua alokatzen dut. Hondartza ondoan. Uztailako eta irailako hamabostaldietan. Tel.: 943 79 31 47.

- Uztaila eta abuztuan bungalow alokagai Peñiskolan. Tel.: 943 77 05 88.

- Apartamentua alokagai Torrevejan. Guztiz hornituta, hondartza ondoan. Ekaina eta uztaila. Tel.: 943 78 14 72.

- Zarautzen erdialdean teilatupe igogailuduna alokagai, denboraldi osoan, oso merke. Tel.: 943 13 07 90.

- Apartamentua alokagai Culleran (Valentzia). Bi gela, garajea eta frontoia. Hondartzaren ondoan. Abuztuko bigarren hamabostaldia, irail osoa eta uztailako lehenengoa hamabostaldia. Tel.: 943 79 93 86. 20:00etatik aurrera.

- Apartamentua alokagai Torrevejan. Bi gela 4/6 pertsonarendako, hondartzatik eta igerilekuetatik kilometro eta erdian. Uztaila eta abuztua, hamabostaldia edo hil osoa. San

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Joan astea 35.000 pta. Tel.: 943 79 53 18.

4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza behar da errentan hartzeko Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

- Lau neskek etxea alokatuko luke-te. Tel.: 943 79 50 85.

- Eskoriatzan etxebizitza bila gabiltza 4 neska. Tel.: 943 88 50 74.

- Unibertsitateko ikasle talde batek 3/4 pertsonarendako etxebizitza behar du, ahal bada Arrasaten. Tel.: 943 62 34 71, Imanol. 943 79 71 23, Ainhoa E.

5. Etxeak osatzeko

- Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko Arrasaten (Lehenbailehen) Tel.: 616 82 17 23. Garbiñe.

- Logela bat alokagai, San Andreseko etxebizitza batean. Tel.: 667 48 30 94.

- Jendea behar da pisua betetzeko Arrasaten. Tel.: 619 77 50 19.

- Jendea behar da etxebizitza osa-

tzeko San Andresen. Tel.: 649 68 22 25. Gorka, gaez.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

- Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eduerne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Usaetxen garaje itxia salgai. Tel.: 943 77 12 77.

14. Errentan emateko

- Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Tel.: 626 37 93 26.

LANA

17. Eskaintza

- 10 urteko esperientzia duen emakume prest orduka etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo bestelako lanak egiteko. Kotxearekin eta eus-

kalduna. Informarekin. Tel.: 677 71 93 31.

- Mutila edozein lan egiteko prest. Tel.: 600 600 531.

- Mutila edozein lan egiteko prest. Tel.: 616 66 48 51

- Neska lan egiteko prest. Tel.: 646 61 13 83.

- Haurrak zainduko lituzke emakume esperientziadunak. Tel.: 943 77 05 39.

- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. Arratsaldez nahia-go. Tel.: 943 79 11 46 (deitu 20:30etatik aurrera, baita igande eta larunbatetan ere).

18. Eskaerak

- Mutila behar da harategian lan egiteko. Tel.: 943 79 14 86.

- Taberna baterako sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 617 60 84 45.

- Emakumea behar da irailetik aurrera bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 696 40 40 67 (utzi izena eta telefono zenbakia).

- Pertsona behar da tabernako sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Sukaldaria behar da, astelehenetik ostiralera Aretxabaletako taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 20 45.

- Emakumea behar da edadeko emakumea zaintzeko, asteburuetan ordu batzu. Tel.: 943 79 09 93. Pilar.

- Sukaldaria behar da. Tel.: 943 79 61 64.

- Umea zaintzeko emakume euskalduna eta esperientziaduna behar dugu. Tel.: 943 79 98 46 (20:00-22:00).

- Taberna lanetarako eta garbiketarako pertsona bat behar da. Tel.: 945 44 50 86.

- Sukaldaria behar da jatetxe batean lan egiteko. Tel.: 943 71 51 23.

- Mutil edo neska bat behar da ile apaindegirako. Oso premiazkoa. Tel.: 943 79 94 39.

- Pertsona bat behar da merkatuan lan egiteko. Tel.: 619 21 91 72.

- Neska behar da neskatila zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 43 34. 20:00etatik aurrera.

- 25 eta 40 urte bitarteko neska edo mutil dinamikoa behar da. Finantza ezagutza eta heziketa enpresariala duena. Interesatuak bidali curri-

culuma argazkiarekin, Arrasateko, 54 posta-kutxatilara.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

• DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Matematikako eskolak ematen dira. Esperientziadun irakaslea. Tel.: 616 55 03 18.

21. Eskaerak

• Bi neskek ingelesezko eskola partikularrak jaso nahiko lukete. Tel.: 943 79 09 71, Nerea eta 943 79 09 86 Naiara.

• 1. batxilergoko ikasle batek ekonomia eskolak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 98 07.

• DBHko 4. mailako eskolak emateko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

• Suzuki SK.50 ziklomotorea salgai. Oso egoera onean. 100.000 pta. Tel.: 616 15 63 73.

• Renault 11 salgai. SS-AB (75.000 pta) Tel: 943 71 54 59.

• Gas gas Trialeko motorra salgai. 250

cc. 92koa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309 salgai. Lau ate, SS-AF matrikula. 170.000 pta. Tel.: 670 42 07 07.

• Motorra salgai, Suzuki GS-500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua 2001.eko maiatzera arte, extrak eta oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• R5 autoa salgai. SS - T, egoera onean. Tel.: 943 79 11 99.

• Clio 16v salgai, 80.000 km. 93. urtekoa, estrak. Tel.: 606 76 50 29.

• Fiat Uno autoa salgai, VI - L, merke eta oso egoera onean. Tel.: 943 77 10 59.

DENETARIK

26. Saldu

• 99ko Wip It piragua salgai. Remo, bainu estalkia eta 4 globo. Tel.: 943 79 78 36. Unai

• 9-12 urte bitarteko haurrentzako bizikleta salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 71 86 (Jone, 19:00-22:00).

• Mugitu ezin diren pertsonak eramateko garabi txikia salgai. Osagai guztiak ditu eta prezio onean salduko genuke. Tel.: 943 79 60 25.

• Boxer eta artzain-txakurren txakurkumeak pedigriarekin salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Bañaresko kanpinean mobilona salgai. Guztiz ekipatura eta bista ederrekin. Tel.: 656 74 83 37.

• PEAR bateria salgai. Egoera onean. Tel.: 666 55 08 10 / 94 475 72 34. Mikel.

• Taberna-jatetxea salgai edo alokagai Aretxabaletan. 100 otordu inguru eguneko. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 20 45.

• Karabana alokagai. Hiru literaduna, ohe txiki eta handi bana (bikoitza). Sukaldean kanpoan frigorifiko handiarekin. Ekaina, uztailla eta abuzturako. Tel.: 946 23 17 96. Itziar edo Mertxe.

• Karro denda alemana salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

• Artzain txakurrak salgai. Tel.: 656 72 85 00.

27. Erosi

• Bigarren eskuko ordenadore portatila erosi nahi dut. Tel.: 943 79 77 85.

• Arrue markako panpinentzako kotxe garaia erosiko nuke. Tel.: 943 79 37 68.

• Billar bat erosiko nuke. Ez dadila oso garestia izan. Tel.: 943 77 17 58. Josu.

31. Galdu

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonora.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Artxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

• Martxoaren 10ean koltxoidenda-ko algodoizko 2 funda galdu nituen

Tximeleta gozokidenda parean. Tel.: 943 79 80 25. Arantza.

• Herriko parrokiaren arkupean Nokia markako esku telefonoa aurkitu nuen. Berreskuratzeko deitu 943 77 01 42 telefonora.

• Urte bateko umearen jaka bake-roa galdu zitzaidan San Andresen. Tel.: 943 79 48 34.

33. Bestelakoak

• Botatzeko dituzun egurrezko atreak jasotzen ditugu. Tel.: 943 79 97 84.

• Zure sukaldeko mahaia, aulkia, armairuak edo gas sukaldea erretiratu behar badituzu, neuk hartuko nizuke. Dei egidazu 616 12 57 26 telefonora.

• Martxan dagoen garbitasun enpresa saltzen dut, furgoneta, makinaria eta guzti, oso modu onean, negozioaz arduratu ezin naizelako. Hileko irabazia 450.000 - 500.000 pta. Tel.: 629 40 47 82.

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

• San Andresen giltza mordoxka duen kremaileradun kartera gorria aurkitu dut. Udaltzaingoa dituzu. Tel.: 943 79 14 39.

• Urrezko pultsera aurkitu dut Munaurreko parkean, zurea bada deitu 943 79 90 94 telefonora.

ETEO

ERDI MAILAKO IKASKETEN HEZIKETARAKO ESKAINTZA (2000-2001 IKASTURTEA)

• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (G.G.Z.B.)

• HEZIKETA ZIKLOAK:

- Administrazio kudeaketa (Erdiko Maila)
- Idazkaritza (Goi Maila)
- Informatika Aplikazioen Garapena (Goi Maila)
- Administrazioa eta Finantzak (Goi Maila)
- Nazioarteko Merkataritza (Goi Maila)

AURREMATRIKULARAKO EPEA:
Ekainaren 12ra arte

Larraña, 16 • OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 • Faxa: 943 71 81 62

email: informacion@etee.muni.es
www.etee.muni.es



Udaberriak ekartzen duen eguzkiarekin eta berotasunarekin batera, Euskal Herriko hondartzak jendez betetzen hasten dira. Lehen ere halaxe izaten zen; ez orain dagoen masifikazioarekin, jakina, baina ahal zuena joaten zen bai kostaldera.

Hori bai, hondartzarako ohiturak majo aldatu dira azken urteotan. Aste honetako argazkia ikustea besterik ez dago. Donostiako Kontxa hondartzan dago aterata, 1932. urteko abuztuan. Julita Barutia eta Felisa Ibañez de Opakua "Txomin Txiki" dira argazkiko mondragoetarrak.

Elegante asko daude bata zein bestea, ikusten denez. Halaxe agintzen zuten, hain zuzen ere, orduko ohiturak. Izan ere, maila altuko jendea joaten zen mende hasieran Kontxara. Bada Madriletik etortzen zenik ere; esaterako, Victoria Eugenia, Espainiako erregina, hantxe izaten zen.

Beraz, gure argazkiko bi lagun moduan, Donostiara joaten ziren mondragoetarrak: txukun-txukun atondu, tren hartu (jeneralean) eta primeran ibiltzen ziren hondartzan!

*Argazkia eta berriemailea:
Arantza Alonso "Txomin Txiki"*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



GAZTEENDAKO LOGELAK

Euren erar@ nabiga ahal dezaten



Ikasi, jolastu, amets egin, sarean zehar nabigatu... nork aipatu du lo egitea?

TodoMueble KABIA n zure seme-alabek goitik behera gozatuko duten logela aurkituko duzu. Aholkularitza profesionala eta ordaintzeko erraztasun ezin hobeak izango dituzu:

- 6 hilabetetan ordaintzeko aukera, gutzia ordaintzeak ekartzen duen deskontuarekin.
- 24 hilabetetan ordaintzeko aukera, interesik gabe eta 6. hiletik aurrera hasita.

Zatoz TodoMueble KABIAra. Izugarri gozatuko duzu.

Ordutegia: 09:30-13:00 / 16:00-20:00 Zapatuak barne.

TODO Mueble **Kabia**
DARIA OIA

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel.: 943 79 27 70 ARRASATE

Astra

Errepideari itsatsita.



Teknologia eskubidea da, ez pribilegioa. Opel Astrarekin, teknologia eta segurtasunik aurreratuena gozatu ahal izango duzu. Opel Astrak Lotus bidez kalibraturiko suspentsioko sistema berritzailea dauka eta bere karrozierarekin tinkotasun paregabe eta norabide-efektuko atzeko ardatzari esker, egonkortasunik handiena du autoak. Opel Astra segurtasun gorena eskaintzen dizu. Asfalrtora itsatsita egoteko.

Serieko ekipamendua: ABS elektronikoa lau gurpiletan, airbag handia gidariaren eta albokoaren jarlekuan, alboko airbag-ak, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, DSA suspentsioa, norabidea-efektuko atzeko ardatza, altuera eta sakontasunean egokitzeko moduko bolantea, goragailu elektrikoak, irrati-frekuentzia bidezko urrutiko agintailudun itxigailu zentralizatua, lapurretaren aurkako geldiarazte elektronikoa, funtzio anitzeko pantaila: irrati diala, tenperatura eta ordua, erdian besojartzekoa maletategira irekia, karrozeria galbanizatua, korrosio-contrako 12 urteko bermearekin.



1.6tik 2.0 16v-rainoko motorrak gasolinan eta 1.7, 2.0 DI 16v eta 2.0 DI 16 v dieselean. 3, 4, 5 ate eta Caravan karrozeriak. Akabera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

www.opel.es

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA
Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea 3 (escatu nabillioia) Tel.: 943 79 05 86